

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Getxoko Udala

Ayuntamiento de Getxo

2011



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Beato Tomás de Zumárraga, 69
01008 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 016000 www.tvcp.org



AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA.....	10
II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA	10
II.1.1 UDALA	10
II.1.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK.....	11
II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA	12
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	14
III.1 UDALA	14
III.1.1 AURREKONTUA, LIKIDAZIOA ETA KONTABILITATEA	14
III.1.2 SARRERAK.....	14
III.1.3 LANGILERIA	15
III.1.4 KONTRATAZIOA.....	16
III.1.5 DIRU-LAGUNTZAK	17
III.1.6 BERANKORTASUNA	18
III.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK	18
III.2.1 LANGILERIA	18
III.2.2 KONTRATAZIOA.....	19
III.2.3 DIRU-LAGUNTZAK	20
III.2.4 BERANKORTASUNA ETA BESTELAKO ALDERDIAK	20
IV. FINANTZA ANALISIA.....	21
V. URTEKO KONTUAK.....	24
V.1 UDALA	24
V.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK	28
V.3 EL ABRA-GETXO KIROL PORTUA, SA SOZIJETATEA	31
V.4 KONTU BATERATUAK.....	32
ALEGAZIOAK	33
BOTO PARTIKULARRA	67



ABREVIATURAS	69
I. INTRODUCCIÓN.....	71
II. OPINIÓN.....	72
II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD	72
II.1.1 AYUNTAMIENTO.....	72
II.1.2 ORGANISMOS AUTÓNOMOS.....	73
II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES.....	74
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	76
III.1 AYUNTAMIENTO	76
III.1.1 PRESUPUESTO, LIQUIDACIÓN Y CONTABILIDAD.....	76
III.1.2 INGRESOS	76
III.1.3 PERSONAL	77
III.1.4 CONTRATACIÓN.....	78
III.1.5 SUBVENCIONES	79
III.1.6 MOROSIDAD	80
III.2 ORGANISMOS AUTÓNOMOS	80
III.2.1 PERSONAL	80
III.2.2 CONTRATACIÓN.....	81
III.2.3 SUBVENCIONES	82
III.2.4 MOROSIDAD Y OTROS ASPECTOS	82
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	83
V. CUENTAS ANUALES	87
V.1 AYUNTAMIENTO	87
V.2 ORGANISMOS AUTÓNOMOS	91
V.3 SOCIEDAD PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO, SA	94
V.4 CONSOLIDADAS.....	95



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ANEXOS/ ERANSKINAK	97
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	97
A.2 Presupuesto y Modificaciones presupuestarias.....	98
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos.....	101
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones.....	102
A.5 Enajenación de inversiones reales	104
A.6 Gastos de personal	104
A.7 Compra de bienes corrientes y servicios.....	106
A.8 Transferencias y subvenciones concedidas	107
A.9 Inversiones reales.....	111
A.10 Inmovilizado no financiero.....	114
A.11 Activos financieros.....	116
A.12 Pasivos financieros	116
A.13 Residuos de ingresos y Pendientes de cobro	117
A.14 Operaciones extrapresupuestarias.....	119
A.15 Cuentas financieras e Ingresos patrimoniales.....	120
A.16 Contratación	121
A.17 Desviaciones de financiación.....	127
A.18 Créditos de compromiso.....	128
A.19 Organismo Autónomo Aula de Cultura	128
A.20 Organismo Autónomo Escuela de Música Andrés Isasi.....	129
A.21 Organismo Autónomo Getxo Kirolak.....	130
A.22 Organismo Autónomo Residencia Municipal del Sagrado Corazón de Jesús	131
A.23 Sociedad Puerto Deportivo El Abra-Getxo, SA	132
ALEGACIONES	135
VOTO PARTICULAR	171

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 24an
Vitoria-Gasteiz, 24 de octubre de 2013





LABURDURAK

BOE	Estatuko Aldizkari Ofiziala.
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BBUP	Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
EPOE	7/2007 Legea, apirilaren 12koa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua.
FEMP	Udalerrri eta probintzien Espainiako Federazioa.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga
EIOZ	Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren gaineko Zerga
TMIZ	Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko zerga
HILBIZ	Hiri izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga
TGB	Tokiko Gobernu Batzarra
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
EFPL	6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
DLO	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.
ZLO	Zergei buruzko 58/2003 Lege Orokorra, abenduaren 17koa.
TAOAL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
LHL	5/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.
10/2003 FA	10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoa.
ZFAO	Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorra, martxoaren 10ekoa.
AEUA	Aurrekontuaren Exekuziorako Udal Araua
TEA	Toki Erakunde Autonomoa
EFP	Ekonomia-Finantza Plana
BP	Baldintzen Plegua
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra
LUO	Lurraren Udal Ondarea.
PGPN	Publizitaterik Gabeko Prozedura Negoziatua



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

APKLEO	Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretu bidez onetsitakoa.
817/2009 ED	817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, SPKL partzialki garatzen duena.
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
HHS	Hiriko hondakin solidoak
APKLTB	Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratua, ekainaren 16koa, 2/2000 Legegintzazko Errege Dekretu bidez onetsitakoa.
AG	Auzitegi Gorena
EHJAN	Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorena
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia



I. SARRERA

HKEEk, otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Getxoko Udalaren 2011ko Kontu Orokorraren fiskalizazioa ez ezik, bere toki erakunde autonomoen eta udalaren gehiengo partaidetza duen sozietate publikoaren fiskalizazioa ere mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, erosketa eta zerbitzuak eta diru-laguntzen emakida.
- Kontularitzakoak: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren, erakunde autonomoen eta sozietate publikoaren egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua eta memoria; baita, Udalaren eta bere erakunde autonomoen aurrekontuen likidazioa ere.

Sozietate publikoaren kontuei dagokienez, gure lana kanpoko enpresa batek gauzatutako auditoretzako txostena aztertzea izan da eta horretarako, beharrezko iritzitako proba osagarriak eta auditoretzako beste zenbait prozedura bideratu ditugu.

- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Bestelako alderdiak: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, Udalaren, bere Erakunde Autonomoen eta Sozietate Publikoaren kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.

Getxoko udalerrriak Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera 80.089 biztanle zituen 2011ko urtarrilaren 1ean eta bere antolamenduan, Udalez gain ondoko erakunde autonomoak eta udalaren partaidetza % 50ekoa baino handiagoa duen sozietate publikoa barne hartzen ditu:

- Kultur Etxea TEA
- Andres Isasi Musika Eskola TEA
- Getxo Kirolak TEA
- Jesusen Bihotzaren Udal Egoitza TEA
- El Abra-Getxo Kirol Portua, SA (% 66,75)

Gainera, ondoko udalaz gaindiko entitate hauen atal da:

- Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoa
- Bizkaiko Garraio Partzuergoa



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

II.1.1 UDALA

KONTRATAZIOA (ikus A.16)

1. Parkeak eta lorategiak zaindu eta mantentzeko zerbitzuaren kontratua 10,8 milioi euroren zenbatekoan esleitu zen ekainaren 30ean 6 urtetarako, 2011n 2,0 milioi euroren gastua eragin du; kontratua administrazioko kontratu berezi modura gauzatu zen, zerbitzu kontratu izaki. Kalifikazio horren ondorioz, zerbitzu kontraturako ezarritako gehiengo iraupen epea gainditu da (APKLTBren arabera, 4 urte).

2. “Etxe Arrosa” izeneko zaharberritzeko espedientean, 998.029 euroren zenbatekoan esleitutakoa, ez da egiaztatu esleipenduna zenik arrazoi teknikoengatik kontratua gauza zezakeen bakarra eta honenbestez, esleipenerako baliatutako prozedura, publikotasunik gabeko negoziatua, ez dago justifikatua (SPKLren 154 d) artikulua).

3. Getxo antzokia berriaren eraikuntza proiektuaren eta obra zuzendaritzaren erredakzioa 2007ko maiatzaren 22an esleitu zen 1,1 milioi euroan eta 2011ko apirilaren 20an aldarazi zen 946.802 euroan (% 86).

Getxo Antzokia (aparkalekua) berriaren II. Faseko lanak 2010eko ekainaren 29an esleitu ziren 2,9 milioi euroren zenbatekoan. 2011ko otsailaren 2an obra osagarri modura izapidetutako obra onartu zen, 605.835 euroan, eta 2011ko irailaren 16an 267.177 euroren aldaketa bat; horrek guztiak batean % 30eko igoera eragin du.

Romoko biltegi nagusia zaharberritzeko espedientea 2009ko abenduaren 1ean esleitu zen 908.044 euroan eta 2010eko azaroaren 2an aldatu zen 461.149 euroren zenbatekoan, (% 51).

Igoera honek SPKLn jasotako lizitazio printzipioak urratzen ditu; izan ere, gogoan izan behar da kontratuak aldatzeko eskumena betiere zuhurtziazko mugen barruan gauzatu behar dela, kopuruaren igoerak kontrataren bolumen ekonomikoa ez itxuraldatzeko moduan.

4. Getxo Antzokia berriaren II. Faseko lanen (aparkalekua) kontratazio espedientearen deialdia, 2,9 milioi euroan esleitutakoa, ez zen ez DOUEn, ez BOEn argitaratu eta horrek SPKLren 74. artikulua urratzen du, izan ere, honek agintzen du fase bakoitzeko esleipenean ezarri behar diren publikotasun arauak fase guztien balio metatuaren arabera zehaztuko direla, kasu honetan 32,1 milioi euro egiten dutenak.

5. Kontratu txiki eta publikotasunik gabeko prozedura negoziatu modura izapidetutako erosketak aztertzean, 1,5 milioi euroren zenbatekoa egin duten gastuak azaleratu dira, 2011n erregistratutakoak, publikotasundun prozedura negoziatu edo prozedura ireki bidez izapidetu behar ziratekeenak (A.16.2 Eranskina).



DIRU-LAGUNTZAK (ikus A.8)

6. Udalak 2011ko urtean zehar 255.602 euroren laguntzak eman zizkien irabazi asmorik gabeko zortzi erakunderi modu zuzenean, publikotasun eta lehiarik gabe eta printzipio horiek ezartzea eragotziko zuten arrazoiak egiaztatu gabe (DLoren 22.3 art.).

ONDAREA

7. Getxoko Udalak ez du lurzoru osoaren ondare publikoaren erregistrorik, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legearen 112.3 eta 113 artikuluek agintzen duten moduan.

II.1.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK: KULTUR ETXEA, ANDRES ISASI MUSIKA ESKOLA, GETXO KIROLAK ETA JESUSEN BIHOTZAREN UDAL EGOITZA ETA EL ABRA-GETXO KIROL PORTUA, SA SOZIJETATE PUBLIKOA

LANGILERIA

Kultur Etxea

8. Udalaren plantillan 15 funtzionario plaza daude, sortu zirenetik bete gabe daudenak (lehenak 1992an), behar bezala betetzeko dagokion enplegu eskaintza eta deialdia egin ez dela, EFPLren 23. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Aipatutako postu horiek lanpostu hutsa bete arte aldi baterako kontratua duen langileriak betetzen ditu.
9. 2011ko abenduaren 31n 6 langile daude obra edo zerbitzu bidezko kontratua 2009an egin zitzaizkienak, horien aldi baterako izaera desitxuratuz. Enpleguaren hazkuntza hobetzeko ekainaren 9ko 5/2006 Errege-Dekretu-Legeari eta Langileen Estatutuaren 15. Xedapen Gehigarriari jarraiki, kontratu hauek mugagabe ez finko bihurtu dira 2009an, EEP deitu gabe.

Andres Isasi Musika Eskola (Musika Eskola)

10. Musika Eskolaren LZk ez ditu aurrekontuan zuzkidura duten 4 lanpostu barne hartzen, bitarteko kontratua duten langileek harik eta lanpostu hutsa legeak agindutakoaren arabera bete arte okupatzen dituztenak; horrek EFPLren 14.1 artikulua urratzen du.

Jesusen Bihotzaren Udal Egoitza (Udal Egoitza)

11. Udal Egoitzaren plantillan 45 plaza daude, sortu zirenetik bete gabe daudenak (horietako batzuk 1995ean), behar bezala betetzeko dagokion enplegu eskaintza eta deialdia egin ez dela, EFPLren 23. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Aipatutako postu horiek lanpostu hutsa bete arte aldi baterako kontratua duen langileriak betetzen ditu.
12. 2011ko ekitaldian, 13 pertsonari aldi baterako 188 lan kontratu gauzatzeko 2002 eta lehenagoko urteetako lanbide maila ezberdinetako lan-poltsak baliatu dira (garbitzaileak, sukaldariak, administrazio laguntzaileak), deialdiei publikotasunik eman gabe osatutakoak; berebat, 15 pertsonarekin aldi baterako beste 81 kontratu egiteko



TEAra igorritako curriculumak baliatu dira. Bi kasuetan ere, ez dira Funtzio Publikorako sarbidean buru egiten duten berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gorde.

KONTRATAZIOA (ikus A.16)

Kultur Etxea

13. Getxoberri eta Gazteak udal aldizkariak filmatu, inprimatu, tolestu, paketatu eta garraiatzeko espedientea, bi urtetarako 212.431 euroren zenbatekoan esleitutakoa, ez da argitaratu ez DOUEn, ez BOEn ere eta horrek SPKLren 126. artikulua urratzen du.

Epaitegi honen ustetan, aurreko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, Getxoko Udalak, toki erakunde autonomoek eta sozietate publikoak zuzentasunez bete dute 2011ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Udalaren 2011ko ekitaldiko aurrekontu likidazioaren sarrerren 4. kapituluak itunpeko zergetan parte-hartzeagatik kitatutako eskubideak (Udalkutxa) barne hartzen ditu; eskubide horiek 46,3 milioi eurorenak dira eta 2011ko ekitaldiaren azken kitapenaren kontura egindako entregei dagozkie.

2011ko ekitaldiaren likidazio negatiboa 2,9 milioi eurorena izan da. Horren itzulketa, 2012ko martxoaren 20an BFAk erabakitakoari jarraiki, 2012 eta 2013ko ekitaldietan egingo da, ustekabeak berdintzeko 746.305 euro kenduko zaizkiola.. 2011ko abenduaren 31n aipatutako kopurua ez da erregistratu ez aurrekontuan, ez ondarean ere.

Gainera, 2011ko abenduaren 31n itzultzeko daude 2009ko likidazio negatiboko 5,8 milioi euro, 2012 eta 2013 bitartean gauzatuko dena (A.12 Eranskina).

1. Hona hemen Getxoko Udalaren 2011ko abenduaren 31n gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikinean, data horretan itxitako Egoera Balantzean eta Funtz Propioetan eragina duten doiketak:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	_____AURREKONTUA_____	_____ONDAREZKOA_____		
	DIRUZAINZA GELDIKINA	AKTIBOA	PASIBOA	FUNTS PROPIOAK
Ekitaldiko edo aurreko ekitaldietako sortutako eskubideak eta 2011.12.31n erregistratu gabeak:				
A.4 Udalkutxa 2011ko likidazioa	-	-	2.172	(2.172)
A.12 Udalkutxa 2009ko likidazioa	(648)	-	-	-
A.3 BBUPren 2011ko 4. hiruhil. sarrerak	-	1.936	-	1.936
A.3 Aurreko urteetan oker erregistratutako BBUPren sarrerak	(876)	(876)	-	(876)
A.3 2011ko 4. hiruhil. likid. & 2011ko likid. jabetza pub. okup. tasag..	-	133	-	133
Beste batzuk:				
A.9 Sarrikobasoko aprobetxamenduetan aldeak	(2.437)	-	2.437	(2.437)
A.14 Aurrekontuz kanpokoetan hirigintz. aprob. aldeak	1.538	-	(1.538)	1.538
A.17 Finantzaketa desbideratzeak	1.900	-	-	-
GUZTIRA	(523)	1.193	3.071	(1.878)

2. Ez dago euskarri egoki edo behar hainbatekorik Udalaren eta Toki Erakunde Autonomoen egoera balantzean jasotako Ibilgetuaren zifrak 2011ko abenduaren 31ko ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen duen ezagutzeko bide emango duenik; ez eta, galera-irabazien kontuan jasotako ibilgetua amortizatzeko zuzkidura egokia den ere.
3. Txosten hau idatzi dugun datan balio justuari buruzko erreklamazio judizialak daude eta horiek ebaztetik pasiboak erator litezke, zenbatekoa zehaztea ezinezkoa izanik.

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoetan azaleratutako hutsak eta 3. paragrafoko zalantza egoerak eragin lezakeen ondorioa salbuetsita, Getxoko Udalaren, toki erakunde autonomoen eta sozietate publikoaren urteko kontuek eta kontu bateratuek alderdi esanguratsu guztietan 2011ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa, ondarearen eta 2011ko abenduaren 31ko finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian bere eragiketen emaitzak erakusten dituzte.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 UDALA

III.1.1 AURREKONTUA, LIKIDAZIOA ETA KONTABILITATEA

KONTU OROKORRA ETA KONTABILITATEA

- 2011ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra hasiera batean 2011ko urtarrilaren 28ko Osokoak onetsi zuen eta behin-betiko onartutako Aurrekontua 2011ko martxoaren 3an eman zen argitara BAOn; ordea, arautegiak behin-betiko urtea hasi aurretik onartu behar dela aurreikusten du (10/2003 Foru Arauaren 15.2 artikulua).
- “Bermeak eta jasotako gordailuak” aurrekontuz kanpoko kontzeptuak oso zaharrak diren saldoak jasotzen ditu (zenbaitetan, 1956koak), nekez eskagarri direnak. Berebat, abalen zerrendak 1961az geroztiko abalak jasotzen ditu. Komenigarria litzateke dagozkien idazpuruetan kontabilizatutako berme edo gordailuen eskagarritasun maila aztertzea eta kasua balitz, itzuli edo erregularizatu egin beharko lirateke aurrekontura txertatuz.
- Udalak finantzaketa atxikia duten gastuetarako geldikinean 11,3 milioi euro barne hartu ditu eta horietatik 4,3 milioi euro hirigintzako aprobetxamenduek eta azalera eskubideek eragindako sarreraren desbideratzei dagozkie. Hirigintzako diru-sarrera hauek jada LUOn egindako inbertsioei loturik egon litezkeela uste dugu, aintzat hartzen badugu bai LHLren 111. artikuluan, bai aipatutako Legearen 115. artikuluan ezarritakoa, zeinak agintzen duen lurraren ondare publikoak osatzen dituzten baliabideak bestelako helburuetarako balia daitezkeela.

III.1.2 SARRERAK

- Tasak eta bestelako sarrerak

Zabor bilketa eta estolderia tasen likidazioa eta diru-bilketa Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoak egiten du eta aldi berean, tasa hauei dagozkien erroldak kudeatzen ditu. Errolda hauek Udalak onartu eta argitaratu behar dituela uste dugu.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.1.3 LANGILERIA

- Lanpostuen Zerrenda

LZk aurrekontu zuzkidurarik ez duten 19 lanpostu jasotzen ditu; bada, EFPLren 17. artikulua agintzen duena betez, lanpostu horiek amortizatu egin behar lirateke.

Bestetik, Udalaren 2011ko abenduaren 31ko LZn bost lanpostu daude, zeinaren betetzeko moldea izendapen askea den, alor ezberdinetako arduradunen postuak. Lanpostu hauetako hiru errekurritu egin dituzte eta EHJANren 981/2011 epaiak adierazi du ez dela behar hainbat justifikatu sistema hau erabiltzeko baldintzak betetzen direnik. Udalak 2012an LZ aldatu zuen hiru lanpostu hauei zegokienez eta izendapen asketik lehiaketara aldatu zuten zuzkidura moldea.

Honenbestez, txosten hau idatzi dugun datan indarrean zegoen LZk 2 lanpostu barne hartzen ditu, lanpostuak betetzeko sistema izendapen librekoa dutenak; ordea, ez da lanpostu horien apartekotasuna eta erantzukizun berezia edo zuzendaritza izaera justifikatu, EFPLren 46.3 b9 eta d) artikulua aipagai duena.

- Ordainketak

Udalak ez dizkio Foru Ogasunari aitortzen gizarte zerbitzu kontzeptuko diruzko ordainsariak, nahiz salbuetsita dauden. Indarreko arautegia betetzeko, Udalak langileen ordainsari guztien berri eman behar dio Foru Ogasunari.

- Altak

2011n zehar programako bitarteko funtzionario bat kontratatu da 2004an osatutako lan poltsa batetik, LANGAIk aurrez hautatutako izangaiak abiaburu hartuta; langile horrek altan jarraitzen du txosten hau idatzi dugun datan. Lan poltsak berriro behar lirateke, enplegu publikorako sarbidea arautzen duten printzipioak betetzeko.

1999 eta 2004 bitartean udalak 25 pertsona kontratatu zituen obra edo zerbitzu kontratu bidez eta 2009ra arte eutsi die kontratu horiei; horrek desitxuratu egiten du kontratuen aldi baterako izaera. Hazkuntza eta enplegua hobetzeko ekainaren 9ko 5/2006 Errege Dekretu Legeari eta Langileen Estatutuaren 15. XGri jarraiki, kontratu hauek mugagabe ez finko bihurtu dira 2009an. Plaza hauek 2010eko ekitaldian onartutako EEPn barne hartuak daude eta deialdia egin zain daude nor bere hautaketa prozesuan, Udalak errekurritu egin baitu funtzionario bihurtzeko prozedura mugatua bideratzeko eskubidea aitortzen duen administrazioarekiko auzi epaitegiaren epaia.

- EEP

Udalaren 2010erako Enplegu Eskaintzak, behin 26/2009 Legearen 23.1 artikuluan eta 4. XIean (abenduaren 23koa, Estatuaren Aurrekontu Orokorrak 2010erako) aurreikusitako salbuespenak aintzat hartuta, gainditu egiten du Lege horretan zehaztutako langileen birjarpen tasaren % 15eko muga.

III.1.4 KONTRATAZIOA (ikus A.16)

Espedienteak berrikustean ondoko akats orokor hauek azaleratu dira:

- Udalaren eta erakunde autonomoen kontratugilearen profila euskarritzen duen sistema informatikoak ez du bertan jasotzen den informazioaren hedapen publikoa zein unetan hasten den modu frogagarrian egiaztatzen utziko duen gailu egokirik, SPKLren 42.3 artikulua agintzen duen moduan.
- Aztertu diren kontratazio espediente guztietan kontratazio mahaiaren ordezkari bat dago kontratazio zerbitzuan, bai administrazioko agiriak irekitzeko, bai formula bidez haztagarriak ez diren irizpideei dagokien dokumentaziorako ere; honek urratu egiten du ondoko artikuluek xedatutakoa: SPKLren 295 eta 144 artikuluek; maiatzaren 8ko 817/2008 EDren 22. artikulua, partzialki SPKL garatzen duena; eta APKLEOren 81. artikulua.

Honez gainera, beste akats hauek ere azaleratu dira:

- Guztira 26,9 milioi euroan esleitutako 9 espedienteren pleguek prezioa balioztatuko formula aritmetikoak ezartzen dituzte eta publikoak izan arren, eskaintza merkeenak zigortzen dituzte (1, 2, 3, 4, 6, 8, 9, 10 eta 20 zk. esp.).
- Aleko prezioetan esleitutako zerbitzuak kudeatzeko kontratu batean, esleipen irizpide modura kalitate eta ingurumenaren ISO ziurtagirien jabe izatea balioztatzen da. Ziurtagiri hauek izatea, enpresaren ezaugarria den aldetik eta zuzenean kontratuaren xedari lotzen ez zaion aldetik, kaudimen irizpidea da eta ez daiteke esleipen irizpide modura balia SPKLren 65 d) artikulua xedatutakoari jarraiki (19. espediente).
- Ibilgailuen araututako aparkaleku zerbitzua kudeatzeko emakida espedienteak ezdu zerbitzuaren azterketa ekonomiko-administratiboa barne hartzen, kontratazio atalak espedienteari onartu aurretik txertatu beharrekoa dena, APKLEOren 183. artikulua agintzen duen moduan (19. espediente).
- Guztira 10,2 milioi euroan esleitutako 6 espedientetan (1, 4, 11, 13, 15 eta 17) behin-betiko esleipena dagozkion aldizkarietan argitara ematea falta da (SPKLren 138.2 art.).
- Bi espedientetan (13 eta 19), hurrenez hurren, 1,0 milioi euroan eta aleko prezioetan esleitutakoak, gehiengo esleipen epea gainditu da, 11 hilabetetan lehenengoak eta 1,5 hilabetean bigarrenak (SPKLren 145. art. eta APKLTBren 89.1 art.).
- Bizkaiko Zubi inguruko paisaia berreskuratzeko lanak, 1,7 milioi euroan esleitutakoak, BFAREN Kultura Sailak alde aurretik baimenik eman gabe gauzatu dira; baimena behin obrak jaso ondoren ematen da.
- Bi espedientetan (7 eta 21) prezioen berrikusketa atzerapenez onartu da eta horietako espediente batean, 998.029 euroan esleitutakoa, kontratua egikaritzeko epea gainditu da epe luzapena onartu gabe.
- Udal eraikinak barrutik garbitzeko espediente 4,6 milioi euroan esleitu zen 4 urtetarako; bertan, behin-betiko bermea ez da esleipen zenbatekoaren gainean kalkulatu (SPKLren 83. artikulua), urteko baten gainean baizik.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Hiri garbiketa eta HOS jasotzeko espedientea urtebetez luzatzea, 2011n 10,8 milioi euroren zenbatekoa egin duena, TGBk onartu zuen Osokoak beharrean, izan ere, alkateari eman zitzaion eskuordea esleipen erabakiak hartzeko soilik zen.
- Galerías Punta Begoña hotela eraiki eta ustiatzeko kontratua alde bien adostasunez suntsitu zenean, esleipendunak kontratua gauzatzeari uko egin izanak Udalarari eragiten dion ondorio ekonomikoaren kalkulua Udalaren idazkariak egin du. Gure iritzira, Artekartzak adierazi bezala, komenigarria zatekeen profesional aditu batek ondorio ekonomikoa balio-neurtzea eta hartara, esleipendunak ordaindutako kopuruaren arrazoizkotasunaz ondoriorik atera ahal izatea, 1,2 milioi euro eragindako kalte eta galera kontzeptuan.
- Erosketa txikien analisia
Erosketa txiki modura izapidetutako erosketak aztertu ditugu eta ikusi dugu 1,5 milioi euroren erosketak egin direla publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeenak, bai kopuruagatik, bai data beretan eta hornitzaile berarekin hornigai berdinak edo antzekoak erosi zirelako.

III.1.5 DIRU-LAGUNTZAK (ikus A.8)

- Udalak ez du diru-laguntzen plan estrategikorik egin 2011ko ekitaldirako, eskuratu asmo diren helburu eta ondorioak, lortzeko behar hainbateko epea, aurreikusgarri diren kostuak eta finantzaketa iturriak zehaztuko dituen; horrek Diru-laguntzen Lege Orokorrak 8. artikuluan ezarritakoa urratzen du.
- TGBk Getxo Empresarial y Comercial (GEYC) enpresari 105.000 euroren diru-laguntza zuzena ematea onartu zuen, 2011ko urtean merkataritza dinamizatzeko jarduerak garatzeko aparteko laguntzak emango zituena. Errepikapena dela eta, edo hartzaileen izaera dela eta, egokiagoa dirudi laguntza horiek Udalbatzak onartutako diru-laguntza nominatibo gisa tratatzea.
- Udalak zuzenean 2 diru-laguntza eman ditu, 93.198 eurorenak; ordea, diruz lagundutako objektua bat dator SPKLn araututako zerbitzu emateko kontratuarekin eta honenbestez, lehia printzipioa urratu da.
- Guztira 501.000 euroren laguntzak eman dituzten 2 diru-laguntza lerrotan Udalak ez du BAOn emandako diru-laguntzen emakida-ebazpenaren laburpenik argitara ematen, kopuruak banaka hartuta 3.000 euroren zenbatekoa gainditzen dutenean, edukia osorik zein tokitan dagoen eskuragarri adieraziaz, DLOren 18.2 artikulua agintzen duenari jarraiki.
- 105.000 euroren zenbatekoan emandako diru-laguntza batean ez da egiaztatu hiru eskaintza eskatzeko obligazioa diruz lagungarri den gastua zerbitzu edo hornigaietan 18.000 euroz gaintekoa bada, DLOren 31.3 artikulua agintzen duen modura.
- Gizarte zerbitzuen esparruan diharduten erakunde, elkarte eta antolamenduei emandako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri-arauek haztatu gabeko irizpideak barne hartzen dituzte eta ez dute diruz laguntzeko gehiengo zenbatekoa mugatzen; diru-laguntza horiek



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

90.000 eurorenak izan dira. Udalak barne funtzionamenduan argitaratu ez diren haztatutako irizpideak eta gehiengo kopuruak baliatzen ditu.

- Ekintza humanitarioko proiektuei (374.000 euroren laguntzak) eta kultura elkarteei (103.700 eurorenak) diru-laguntzak emateko oinarri arauak objektiboak ez diren irizpideak barne hartzen dituzte, hala nola, erakundeak herrian duen tradizioa. Irizpide hauek, baina, ez dira erabakigarriak izan emakida egiteko. Honez gain, 103.700 euroren diru-laguntza batean, oinarri-arauek ez dute diru-laguntzaren kopuru gehiengoa zehazten eta emandako diru-laguntza ez da eskuratutako puntuen baitakoa.

III.1.6 BERANKORTASUNA

- Aurreikusitako ordainketak gauzatu izanari buruzko hiruhileko txostenak mamitu ditu udal artekaritzak 2011ko ekitaldian, Udalbatzari igortzen zaizkionak; halaxe agintzen dute merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako borrokan neurriak ezartzen dituen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4.3 eta 5.4 artikuluek, abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duena. 2011ko ekitaldian zehar, aipatutako Legeak ezarritako epea gainditu da 7,1 milioi euroren zenbatekoan, ordainketen % 11 egiten dutenak.

III.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK

III.2.1 LANGILERIA

- Langileak kontratatzea

Kultur Etxeak Gabonetako “Getxolandia 2011-2012” haur programarako animatzaile, arduradun eta begirale postuak betetzeko kontratazioa, 26.663 euroren gastua izan duena, deialdi publiko bidez egin da eta betekizunen artean, besteak beste, Getxon bizi izatea ezartzen du. Baldintza honek mugatu egiten du funtzio publikorako sarbidea, EFPLren 25.1 artikulua urratuz.

Bestetik, Kultur Etxeak lanpostu hutsa bete bitartean 7 langileren kontratazioan 2004ko ekitalditik 2010era bitartean eta aldi baterako 6ren kontratazioan 2011ko ekitaldian, 1994 eta 1997ko lan poltsak baliatu ditu; berebat, Udal Egoitzak 2004ko ekitalditik 2011ra bitartean 17 langileren hautaketan 2002 baino lehenagoko lan poltsak baliatu ditu.

Lan poltsak berritu behar lirateke, enplegu publikorako sarbidea arautzen duten printzipioak betetzeko.

Musika Eskolan lan poltsa bidez aldi baterako langileria kontratatzeke ezarritako prozedurak ez du horren erabilera egiaztatzen uzten, ez baitago gauzatutako ekintzen behar hainbateko euskarri edo ebidentziarik.

- Ordainketak

TEAek ez dizkiote Foru Ogasunari aitortzen gizarte zerbitzu kontzeptuko diruzko ordainsariak, nahiz salbuetsita dauden. Indarreko arautegia betetzeko, Erakunde Autonomoek langileen ordainsari guztien berri eman behar diote Foru Ogasunari.

- Beste batzuk



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2008ko azaroaren 7an, Musika Eskolako Zuzendaritza Kontseiluak 2008-2010eko Udalhitzera atxikitzea erabaki zuen; ebazpen horri publikotasuna eman behar ziokeen aldizkari ofizialetan (EFPLren 102.3 artikulua).

III.2.2 KONTRATAZIOA (ikus A.16)

Kultur Etxea

- Guztira 212.431 euroren zenbatekoan esleitutako espediente batean aurkeztutako eskaintzak balioztatzen dituen txosten teknikoak pleguan irizpide bakoitzari emandako puntuazioak zehazten ditu, baina ez ditu emandako puntuazio horiek justifikatzen.
- 2011ko ekitaldian zehar, auzoko festa eta inauterietarako hainbat zerbitzu kontratatu dira 2 hirugarrenekin guztira 130.608 euroan, 27 fakturari dagozkionak, eta horientzat Kultur Etxeak kontratu txikiaren prozedura baliatuta erostea aztertu behar lukeela uste dugu.
- Kultur Etxeak dagokion espedientearen hasiera eta esleipena atzeratu denean zuzenean kontratatu ditu zerbitzuak, 49.031 euroren zenbatekoan.

Getxo Kirolak

- Fitness-muskulazio aretoetako zerbitzuak ustiatzeko kontratazio espedientea 2005eko maiatzaren 13an esleitu zen eta 2011ko ekitaldian 310.562 euroren gastua izan du; hona hemen espediente horretan azaleratu diren akatsak:
 - . Kontratazio mahaiaren osaera ez da zuzena, izan ere ez dira bertan izan ez idazkaria, ez artekaria eta mahaiak ez du esleipen proposamenik egin. Esleipena zuzenean lehendakariak ebazten du, txosten teknikoa jaso ondoren; ordea, horretarako eskumena duen atala Zuzendaritza Kontseilua da.
Gerora, 2007ko irailaren 19an, Zuzendaritza Kontseiluak lehendakariaren proposamena onartu zuen.
 - . Atal eskumendunak gastua egiteko eta baliatzeko baimena eman duenik ez da egiaztatu eta lehendakariak egiten du Zuzendaritza Kontseiluak beharrez; gainera, ez dago krediturik badelako ziurtagiririk, ezta pleguen berri emango duen txosten juridikorik ere.
 - . Ez da azterketa ekonomikorik egin denik egiaztatu eta Ordenantza Fiskalean ere ez dira horri dagozkion prezioak onartu.
- Gune berdeak eta lorategiak zaintzeko espedienteak, 261.612 euroan esleitu zena, esleipen irizpide modura hobekuntzak egitea besarkatzen du, zein elementuren gainean eta zein baldintzatan zehaztu gabe (SPKLren 131. artikulua).
- Sorospen, igerileku eta udako abentura plana espedientearen, 503.798 euroan esleitutakoa, ez da behin-betiko esleipena dagokion aldizkari ofizialean argitaratu (SPKLren 138.2 artikulua).



- Kontratu txiki modura izapidetu diren erosketak berrikusterakoan ikusi da segurtasun eta zaintza kontratua, 2011ko abuztuaren 9an amaitzen zena, 2011n egikaritzen jarraitu dela, 99.518 euroren zenbatekoan.

III.2.3 DIRU-LAGUNTZAK

- Kultur Etxeak ez du diru-laguntzen plan estrategikorik egin 2011ko ekitaldirako, eskuratu asmo diren helburu eta ondorioak, lortzeko behar hainbateko epea, aurreikusgarri diren kostuak eta finantzaketa iturriak zehaztuko dituen; horrek Diru-laguntzen Lege Orokorrak 8. artikuluan ezarritakoa urratzen du.
- Kultur Etxea Erakundeak lehendakariaren Ebazpen bitartez unean uneko izaeradun aparteko 20 diru-laguntza zuzenean eman dizkie 15 kultur erakunderi, guztira 74.620 euroren zenbatekoan; ez dira, baina, espedientean behar hainbat justifikatu deialdi publikoa egitea eragozten duten arrazoiak.
- Getxo Kirolak elkarteak aparteko diru-laguntzak eman dizkie 49 erakunde onuraduni kirol jarduerak antolatzeko, guztira 186.040 euroren zenbatekoan: espedientean ez dira, ordea, deialdi publikoa egitea eragotzi duten interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak, edo behar bezala justifikatutako beste batzuk, behar hainbat egiaztatu eta horrek DLoren 22. artikulua urratzen du.

III.2.4 BERANKORTASUNA ETA BESTELAKO ALDERDIAK

- Berebat, ez dira merkataritzako eragiketen ordainketarako aurreikusitako epeak betetzeari dagokionez hiruhileko txostenak mamitu eta horrek 3/2004 Legea aldarazten duen 15/2010 Legearen 4.3 artikulua urratzen du.
- Getxo Kirolak eta Udal Egoitzak ez dute 2011ko ekitaldian Foru Ogasunaren aurrean hirugarrenetik eragiketen urteko aitorpena aurkeztu, abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuan araututakoa, zerga-kudeaketan elkarri laguntza emateko betebeharra urratuz, Foru Arau Orokorraren 92. artikuluan jasoa.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. FINANTZA ANALISIA

Udal baten finantza egoera etorkizuneko inbertsio programak finantzatzeko gaitasunari dagokionez, honako aldaki hauek zehazten dute: Aurrezki garbiak, Diruzaintza geldikinak eta Zorpetzeak.

Ondotik, Udalak 2009-2011 aldian zehar likidatutako magnitude nagusien bilakaera erakutsiko dugu.

FINANTZA ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak/biztanleko		
	URTEA			URTEA		
	2009(*)	2010(*)	2011	2009(*)	2010(*)	2011
Zergak (1. eta 2. kap.).....	23.490	22.794	23.097	291	284	288
Tasak eta bestelako sarrerak (3. kap.).....	17.864	15.921	14.949	221	198	186
Transf. eta diru-lag. arrunt. (4. kap.).....	45.222	48.958	51.107	560	610	638
Ondare sarrerak (5. kap.).....	1.588	1.122	1.906	20	14	24
A. Diru-sarrera arruntak	88.164	88.795	91.059	1.092	1.106	1.136
Langileria gastuak (kap. 1).....	25.520	25.453	23.966	316	317	299
Erosketak, zerb. eta dirul. (2. eta 4. kap.)	52.272	50.676	49.634	647	631	620
B. Funtzionamendu gastuak	77.792	76.129	73.600	963	948	919
Aurrezki gordina (A-B)	10.372	12.666	17.459	129	158	217
- Finantza gastuak (3. kap.).....	551	207	381	7	3	5
Emaitza arrunta	9.821	12.459	17.078	122	155	212
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	3.069	3.841	2.991	38	48	37
Aurrezki garbia	6.752	8.618	14.087	84	107	175
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.)..	188	(845)	1.384	2	(11)	17
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.)..	18.982	10.313	4.226	235	128	53
-Inbertsio errealak (6. kap.).....	23.093	29.539	17.744	286	368	222
-Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.)	3.552	2.524	383	44	31	5
Kapital eragiketen emaitzak	(7.475)	(22.595)	(12.517)	(93)	(281)	(156)
Eragiketa ez finantz. emaitza (1etik 7rako kap.)	2.346	(10.136)	4.561	29	(126)	57
Diruzaintzako geldikina	48.495	35.862	37.419	600	447	467
Zorpetzea (**)	35.653	36.210	34.998	441	451	437

(*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

(**) BFArekiko zorrak barne hartu gabe (Udalkutxa)

Sarrera arruntak: Aztergai izan dugun aldian % 3,28 gehitu dira. Sarrera arrunten kapituluetan 2011n izan diren aldaketa handienak aurreko ekitaldiarekiko honako hauek izan dira:

- Zerga kontzeptuetan aitortutako eskubideek % 1,67ko jaiste garbia izan dute, zeharkako zerga kontzeptuan aitortutako eskubideek % 30,51 egin dutelako behera eta zerga zuzenak % 1,5 egin dutelako gora. Zerga kontzeptuko xehapena honakoa da:
 - . OHZ kontzeptuan aitortutako eskubideek % 2,58 egin dute gora 2011n aurreko ekitaldiarekiko. 2011n ezargarri diren tipo zergagarriek ez dute gora egin 2010ekoekiko; alabaina, katastro balioak % 2 aldatu dira eta errolda unitateak, % 1,14.



2011ko ekitaldian kontzeptu honen izenean aitortutako eskubideen zenbatekoa zerga guztien % 59,65ekoa izan da.

- . 2011ko ekitaldian, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Zerga kontzeptuan aitortutako eskubideak 2010eko kopuru bertsutan mantentzen dira, zergaren tarifak ez du aldaketarik jasan 2009tik 2010era bitarteko aldiaren eta errolda unitateek ere ez dute bariazio esanguratsurik izan urte batetik bestera. 2011ko ekitaldian kontzeptu honen izenean aitortutako eskubideen zenbatekoa zerga guztien % 17,96koa izan da.
- . HILBIZ kontzeptuan aitortutako eskubideek % 6 egin dute behera, 2011ko ekitaldian egindako likidazioek behera egin dutelako. 2011ko ekitaldian kontzeptu honen izenean aitortutako eskubideen zenbatekoa zerga guztien gainean % 10,92koa izan da.
- . JEZ kontzeptuan aitortutako eskubideek % 3,95 egin dute behera aurreko ekitaldiarekiko jaulkitako likidazioek behera egin izanaren ondorioz; bere horretan eutsi zaie 2010ekoarekiko 2011n kuotaren gainean ezargarriak diren koefizienteak. 2011ko ekitaldian kontzeptu honen izenean aitortutako eskubideen zenbatekoa zerga guztien gainean % 4,47koa izan da.
- . EIOZ kontzeptuan aitortutako eskubideek % 0,71 egin dute gora aurreko ekitaldiarekiko. Zerga hau ekitaldi bakoitzean ematen diren eraikuntza baimenen baitakoa da eta, honenbestez, merkatuko fluktuazioetara meneratua dago. 2011n tipo zergagarriek ez dute aldaketarik izan. Kontzeptu honen izenean aitortutako eskubideen zenbatekoa zerga guztien gainean % 7koa izan da.
- Transferentzia arrunten kapituluan aitortutako eskubideek % 4,39 egin dute gora 2010arekiko. Osagairik garrantzitsuena Udalkutxa da. 2010 eta 2011ko ekitaldietan konturako entregak erregistratu ziren, hurrenez hurren, 43,5 eta 46,3 milioi euroren zenbatekoan 2010eko ekitaldiaren likidazio positiboarekin ordaintzeko zegoen 2009ko likidazio negatiboa urritu zen eta 2011ko likidazio negatiboa, 2,9 milioi eurorena, erregistratzeko dago ekitaldi itxieran.
- Ondare sarreren kontzeptuan aitortutako eskubideek % 69,88 egin dute gora 2010ean, batik bat, epe laburreko ezarpenen gordailuen interesek gora egin dutelako eta udal lursailen azalera eskubideek eragindako sarreren ondorioz.

Funtzionamendu gastuak: Aztertutako epean beheraldia % 5,39koa izan da eta 2011n 2010arekiko beheraldia % 2,06koa izan da. Langile gastuek, ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa gastuek eta gastu arruntetarako transferentzia eta diru-laguntza gastuek behera egin dute aztertutako aldiaren, hurrenez hurren, % 6,09, % 1,89 eta % 5,05ean.

Aurrezki gordina: Aztergai dugun aldiaren, sarrera arrunt eta funtzionamendu gastuen arteko aldea 10,4tik 17,5 milioi euro izatera aldatu da, eta horrek % 68,34ko igoera egiten du, izan ere funtzionamendu gastuek % 5,39 egin dute behera eta sarrerek, berriz, % 3,28 egin dute gora. 2011n 2010arekiko igoaldia % 37,85ekoa da eta 2010ean 2009arekiko, % 22,12koa.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Aurrezki garbia Finantza zamaren ordainketari aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den aurrezki gordinaren atala islatzen du (interesak eta zorraren amortizazioa, hurrenez hurren gastuen 3. eta 9. kapituluetan kontabilizatzen direnak) eta Udalak baliabide arrunten bidez inbertsioak finantzatzeko duen gaitasuna erakusten du. Aztertu dugun aldian magnitude hau 2009an 6,8 milioi eurorena izatetik 2011n 14,1 milioi eurorena izatera aldatu da eta horrek 2009arekiko % 108,65eko igoaldia ekarri du.

Kapital eragiketen emaitza: Emaitza negatiboa % 67,45 gehitu da aztertutako aldian, nahiz inbertsioak % 23,16 murriztu diren, batik bat “Kapital transferentziak” 7. kapituluan jasotako diru-laguntza kontzeptuan aitortutako eskubideek % 77,74 behera egin izanaren ondorioz, 2010eko ekitaldiaren Enplegu eta Iraunkortasunerako Estatuko Funtsa amaitu izanaren eragina dela-eta.

Diruzaintza geldikina: Aztertutako aldian magnitude hau 2009an 48,5 milioi eurorena izatetik 2011n 37,4 milioi euro izatera aldatu da; horrek, % 22,84ko beheraldia egiten du, nagusiki aztertutako aldiko inbertsioak finantzatzeko baliatu delako.

Zorpetzea: Aztertutako aldian finantza erakundeekiko zorpetzeak % 1,83 egin du behera, eta 2009an 35,7 milioi eurorena izatetik 2011n 35 milioi eurorena izatera aldatu da.

Bestalde, 2011ko abenduaren 31n Udalak BFari itzultzeko du Udalkutxaren 2009ko likidazio negatiboaren zati bat, 5,8 milioi eurorena eta 2011ko likidazio negatiboa, 2,9 milioi eurorena, zeinaren itzulketa 2012 eta 2013an egingo den.

Ondorioa: Udal Administrazioek egiten dituzten inbertsioen balizko finantzaketa iturriak honako hauek dira: ekitaldi bakoitzean sortzeko gai diren aurrezki garbia, diruzaintza geldikinak eta diru-laguntza bidez edo zorpetze berri baten bidez eskura dezaten kanpoko finantzaketa.

Aztertutako aldian sarrera eta gastuen zifra nagusien bilakaerak aurrezki garbiaren bilakaera positiboa eragin du, batik bat, sarrera arruntei eutsi zaielako eta funtzionamendu gastuak murriztu direlako; horrek ekitaldian zehar kapital eragiketak finantzatzeko bide eman du.

Beharrezkoa da aurrezki garbia eskuratzea inbertsio eta kapital transferentzien gastuak finantzatzeko. 2012ko ekitaldiaren likidazioak (fiskalizatu gabea) 2011ko ekitaldikoa baino % 5,45eko aurrezki garbi handiagoa erakutsi du, izan ere funtzionamendu gastuak sarrera arruntak baino ehuneko handiagoan murriztu dira. Honela, bada, 2012ko inbertsioak, % 52,42 murriztu direnak 8,4 milioi euro eginez, zorpetze bidea baliatu gabe finantzatu dira, aurrezki garbi bidez nagusiki. 2012ko abenduaren 31n geldikina 43,5 milioi eurorena izan da eta aurreko ekitaldiarekiko % 16,26 gehitu da; zorpetzea, berriz, 31,7 milioi eurorena izan da eta % 9,48 egin du behera.

**V URTEKO KONTUAK****V.1 UDALA**

2011-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	AURREKONTUA			ESKUBIDE		KOBR.		%
	ERANSK.	HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	
1. Zerga zuzenak	A.3	20.930	-	20.930	21.480	19.741	1.739	103
2. Zeharkako zergak.....	A.3	1.584	-	1.584	1.617	1.078	539	102
3. Tasak eta bestelako sarrerak.....	A.3	16.908	43	16.951	14.949	10.211	4.738	88
4. Transferentzia arruntak	A.4	55.188	332	55.520	51.107	50.712	395	92
5. Ondare sarrerak	A.15	1.005	-	1.005	1.906	1.877	29	190
6. Egiazko inbertsioen besterentzea	A.5	1.474	-	1.474	1.384	1.276	108	94
7. Kapital transferentziak	A.4	-	3.305	3.305	4.226	4.193	33	128
8. Finantza aktiboak.....	A.11	189	31.625	31.814	93	93	- (*)	49
9. Finantza pasiboak	A.12	-	1.377	1.377	1.316	1.316	-	96
GUZTIRA		97.278	36.682	133.960	98.078	90.497	7.581	96

(*) Exekuzioaren % kalkulatzekoan Diruzaintza Geldikin bidez finantzatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	AURREKONTUA			OBLIG.		ORDAIN.		%
	ERANSK.	HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	
1. Langileria-gastuak	A.6	24.698	(242)	24.456	23.966	23.407	559	98
2. Ondasun arrunten erosketak eta zerb.	A.7	36.825	2.309	39.134	34.469	27.731	6.738	88
3. Finantza gastuak	A.12	783	-	783	381	354	27	49
4. Transferentzia arruntak	A.8	17.057	72	17.129	15.165	13.988	1.177	89
6. Inbertsio errealak	A.9	13.874	34.159	48.033	17.744	14.577	3.167	37
7. Kapital transferentziak	A.8	-	429	429	383	204	179	89
8. Finantza aktiboak.....	A.11	189	-	189	45	45	-	24
9. Finantza pasiboak	A.12	3.852	(45)	3.807	2.991	2.787	204	79
GUZTIRA		97.278	36.682	133.960	95.144	83.093	12.051	71

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	KOBR./		AZKEN	
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA	
Zordunak	A.13	23.995	2.337	15.100	6.558	
Hartzekodunak		17.044	(22)	17.051	15	
AURREKONTU ITXIAK		6.951	2.359	(1.951)	6.543	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA		Euroak milakotan
Kitatutako eskubideak		98.078
Aitortutako obligazioak.....		(95.144)
Eskubideen balio gabetzea aurrekontu itxietan.....		(2.337)
Obligazioen balio gabetzea aurrekontu itxietan		-
AURREKONTUAREN EMAITZA		597
EMAITZARI DOIKETAK		
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako obligazioak		16.241
Finantzaketaren desbideratze negatiboak		2.760
Finantzaketaren desbideratze positiboak		(6.257)
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA		13.341

DIRUZAINZA GELDIKINA		Euroak milakotan
KOBRAZTEKO DAUDEN ZORDUNAK:		
Diru-sarreraren aurrekontukoa, arrunta		7.581
Sarreraren aurrekontukoak, itxiak.....		6.558
Aurrekontukoak ez diren beste hainbat eragiketakoak		1.706
(Zalantza kobragarritasuneko saldoak).....		(7.736)
Aplikatzeko dauden sarrerak		(1.800)
GUZTIRA (A)		6.309
ORDAINTZEKO DAUDEN HARTZEKODUNAK:		
Gastuen aurrekontukoa, arrunta		12.051
Gastuen aurrekontukoa, itxiak		15
Sarreraren aurrekontukoa		1
Aurrekontukoak ez diren beste hainbat eragiketakoak		8.158
GUZTIRA (B)		20.225
DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK (C)		51.335
DIRUZAINZA-GELDIKINA (D=A-B+C)		37.419
ERAGINPEKO FINANTZAKETA DUTEN GASTUETARAKO GELDIKINA (E)		11.279
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA (D-E)		26.140

KONPROMISO KREDITUEN EGOERA		Euroak milakotan		
URTEKOA	MUGA	BAIMEND.	ERABIL.	
2012	13.339	3.630	1.749	
2013	8.020	520	79	
GUZTIRA	21.359	4.150	1.828	

Euroak milakotan	
ZORPETZEA 2011.12.31-N	40.803



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2011-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINAK	2011.12.31	2010.12.31	PASIBOA	ERANSKINAK	2011.12.31	2010.12.31
IBILGETUA		108.866	106.257	FUNTS PROPIOAK		108.206	103.986
Erab. or. em. azp. onds. & ond.	A.10	6.118	13.604	Ondarea		78.684	78.684
Ezmateriala	A.10	3.108	1.749	Erabilera orokorrerako ondarea..		(113.543)	(99.938)
Materiala	A.10	97.019	88.610	Atxikitako ondarea		(8.780)	(8.780)
Lurraren Udal Ondarea	A.10	2.381	2.068	Lagatako ondarea		(126)	(126)
Finantzarioa		240	226	Aurrek. Itxien emaitza posit.		134.146	116.578
				Galera-irabaziak		17.825	17.568
				ARRISKU ETA GASTUETARAKO ZUZKIDURAK		100	1.423
				HAINBAT EKIT. BANATZEKO SARR.		2.289	-
				HARTZEKODUNAK EPE LUZERA		35.576	39.480
				Kreditu entitateetako zorrak	A.12	31.586	33.556
				Best. hartzekodunak epe luzera .	A.12	3.990	5.924
ZORDUNAK		8.080	16.366	HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA		22.205	27.232
Indarreko ekit. aurrek. zordunak	A.13	7.581	8.511	Indarreko ekit. aurrek. hartz.....		12.051	17.050
Ekit. itxien aurrek. zordunak	A.13	6.558	15.483	Ekit. itxien aurrek. hartzek.		15	16
Askotariko zordunak		1.677	1.067	Kreditu entitateekiko zorrak	A.12	3.292	2.534
Entitate publiko zordunak		-	-	Bestel. hartzekodun ez aurrek.		5.107	6.262
(Hornidurak)	A.13	(7.736)	(8.695)	Erakunde Publiko hartzek.		1.478	1.296
				Aplikatzeko dauden sarrerak A.14	262	74	
FINANTZA KONTUAK		51.430	49.498				
Inbertsio finantzario iragankorrak ..	A.14	40.000	35.300				
Diruzaintza		11.335	14.055				
Bank. ez diren bst. kont.	A.15	95	143				
AKTIBOA		168.376	172.121	PASIBOA		168.376	172.121

2011-KO EKITALDIAREN GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	2011	2010	SARRERAK	ERANSK.	2011	2010
Langileria-gastuak	A.6	24.117	25.610	Negozio zifraren zenbateko garbia ...	A.3	11.311	11.117
Ibilgetua amortizatze zuzk.	A.10	3.232	2.595	Zerga zuzenak	A.3	21.480	21.189
Trafiko horniduragatiko aldak.		(859)	393	Zeharkako zergak	A.3	1.617	1.605
Kanpoko zerbitzuak		34.454	35.318	Jasotako transf. eta dirul.	A.4	55.333	49.958
Transf. eta hitzart. diru-lag.	A.8	15.548	17.682	Kudeaketa arrunteko bestel. sarr.	A.3	6.138	4.960
Ustiaketa mozkinak		19.387	16.541	Ustiaketa galerak		-	-
Finantza gastuak	A.12	381	207	Kapitaleko partaidetzen sarrerak	A.15	-	-
Finan. inberts. zuzkid. bariazioa		(15)	(12)	Finantza sarrerak		1.131	924
Finantza emaitza positiboak		765	729	Finantza emaitza negatiboak		-	-
Aurreko ekitald. gastu-galerak		2.520	2.234	Aurreko urt. sarrera eta mozkinak		201	2.528
Aurreko ekitaldietako mozkinak		-	-	Aurreko ekitaldietako galerak		2.319	294
Ibilgetutik eratorritako galerak		-	-	Ibilgetua besterentz. mozkina		-	1
Aparteko galerak		8	-	Aparteko irabaziak		-	-
Aparteko emaitza positiboak	-	1		Aparteko emaitza negatiboak		8	-
Ekitaldiaren emaitza (mozkinak)		17.825	17.568				



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTU EMAITZAREN ETA ONDARE EMAITZAREN ARTEKO BERDINKATZEA		Euroak milakotan
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA		597
+ Gehik.		23.023
Egiazko inbertsioak 6. kapituluko obligazioak	17.744	
8. kapituluko obligazioak Finantza aktiboak	45	
9. kapituluko obligazioak Finantza pasiboak	2.991	
Arrisku eta gastuetarako zuzkidurak	959	
Zalantzazko kobragarritasunaren bariazioa	959	
Ibilgetu materialetik eratorritako mozkinak	201	
Beste batzuk	124	
- Murrizketak		(5.795)
6. kapituluko eskubideak. Inbertsio errealeen besterentzea	-	
8. kapituluko eskubideak. Finantza aktiboak	(93)	
9. kapituluko eskubideak. Finantza pasiboak	(1.316)	
Ibilgetua amortizatzeko zuzkidura	(3.232)	
Arrisku eta gastuen hornidurarako zuzkidura	(100)	
Azalera eskubideen doiketak	(641)	
Ibilgetuaren galerak	(184)	
Beste batzuk	(229)	
EKITALDIKO ONDARE EMAITZA		17.825



V.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK

2011-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

AITORTUTAKO ESKUBIDEAK	KULTUR	MUSIKA	GETXO	JESUSEN BIHOTZA
	ETXEA	ESKOLA	KIROLAK	UDAL EGOITZA
3. Tasak eta bestelako sarrerak.....	582	408	3.473	3.307
4. Transferentzia arruntak	6.110	1.801	2.699	1.909
5. Ondare sarrerak	6	-	10	1
6. Egiazko inbertsioen besterentzea	-	-	-	-
7. Kapital transferentziak	262	-	100	68
8. Finantza aktiboak.....	2	6	-	8
GUZTIRA	6.962	2.215	6.282	5.293

Euroak milakotan

AITORTUTAKO ESKUBIDEAK	KULTUR	MUSIKA	GETXO	JESUSEN BIHOTZA
	ETXEA	ESKOLA	KIROLAK	UDAL EGOITZA
1. Langileria-gastuak	2.773	1.971	2.159	4.189
2. Ondasun arrunten erosketak eta zerb.	3.621	218	3.733	1.031
3. Finantza gastuak	3	-	-	-
4. Transferentzia arruntak	300	17	290	-
6. Inbertsio errealek	262	-	100	68
7. Kapital transferentziak	-	-	-	-
8. Finantza aktiboak.....	3	5	-	5
9. Finantza pasiboak	-	-	-	-
GUZTIRA	6.962	2.211	6.282	5.293

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

ZORDUNAK	KULTUR	MUSIKA	GETXO	JESUSEN BIHOTZA
	ETXEA	ESKOLA	KIROLAK	UDAL EGOITZA
Hasierako zorra	389	544	923	227
Baliogabetzeak	-	4	-	-
Kobrantzak	389	540	863	225
Azken zorra	-	-	60	2
HARTZEKODUNAK				
Hasierako zorra	799	216	788	298
Baliogabetzeak	-	-	-	-
Ordainketak	799	216	788	298
Azken zorra	-	-	-	-



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

	KULTUR ETXEA	MUSIKA ESKOLA	GETXO KIROLAK	JESUSEN BIHOTZA UDAL EGOITZA
Kitatutako eskubideak.....	6.962	2.215	6.282	5.293
Aitortutako obligazioak.....	6.962	2.211	6.282	5.293
Eskubideen baliogabetzea aurrekontu itxietan.....	-	4	-	-
Obligazioen baliogabetzea aurrekontu itxietan.....	-	-	-	-
AURREKONTUAREN EMAITZA	-	-	-	-
EMAITZARI DOIKETAK				
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako obligazioak	-	-	-	-
Finantzaketa desbideratzeak	-	-	-	-
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	-	-	-	-

DIRUZAINZTA GELDIKINA

Euroak milakotan

	KULTUR ETXEA	MUSIKA ESKOLA	GETXO KIROLAK	JESUSEN BIHOTZA UDAL EGOITZA
KOBRAZTEKO DAUDEN ZORDUNAK:				
Diru-sarrerren aurrekontukoa, arrunta	530	481	380	510
Sarrerren aurrekontukoak, itxiak.....	-	-	60	2
Aurrekont. ez diren beste hainbat eragiketetakoa.....	11	3	6	7
(Zalantzako kobragarritasuneko saldoak).....	-	-	(60)	(2)
GUZTIRA (A)	541	484	386	517
ORDAINTZEKO DAUDEN HARTZEKODUNAK:				
Gastuen aurrekontukoa, arrunta	610	33	275	315
Gastuen aurrekontukoa, itxiak	-	-	-	-
Aurrekont. ez diren beste hainbat eragiketetakoa.....	429	467	176	337
GUZTIRA (B)	1.039	500	451	652
DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK (C)	498	16	65	135
DIRUZAINZTA-GELDIKINA (D=A-B+C)	-	-	-	-
FINANTZAKETA ATXIKIA DUTEN GAST. GELDIKINA (E)	-	-	-	-
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA (D-E)	-	-	-	-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2011-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	KULTUR ETXEA	MUSIKA ESKOLA	GETXO KIROLAK	JESUSEN BIHOTZA UDAL EGOITZA
Ibilgetua	844	1.199	25.680	10.604
Ibilgetu ezmateriala.....	1	-	10	-
Ibilgetu materiala.....	843	1.199	25.670	10.604
Ibilgetu finantzarioa.....	-	-	-	-
Epe luzeko hartzekod.....	-	-	-	-
Zordunak	530	481	380	510
Finantza kontuak	510	25	71	146
Inbertsio finantzario iragankorrak.....	-	6	-	5
Diruzaintza.....	510	19	71	141
AKTIBOA	1.884	1.705	26.131	11.260
Berezko funtsak	846	1.205	25.680	10.608
Ondarea.....	123	831	9.616	769
Atxikipen bidean dagoen ondarea.....	(51)	-	2.163	6.616
Ekitaldi itxien ondorioak.....	612	434	14.504	3.569
Galera-irabaziak.....	162	(60)	(603)	(346)
Hartzekodunak epe laburrera	1.039	500	451	652
Aurrekontuzko hartzekodunak.....	610	33	275	315
Erakunde Publiko hartzekodunak.....	397	131	107	313
Hartzekodun ez aurrekontuzkoak.....	32	336	69	24
PASIBOA	1.884	1.705	26.131	11.260

2011-KO EKITALDIAREN GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

	KULTUR ETXEA	MUSIKA ESKOLA	GETXO KIROLAK	JESUSEN BIHOTZA UDAL EGOITZA
Langileria-gastuak.....	2.781	1.977	2.168	4.194
Ibilgetua amortiz. zuzkidura.....	102	59	703	411
Trafiko zuzkiduren bariazioa.....	-	-	-	-
Emandako transferentzia eta diru-laguntzak.....	300	17	290	-
Bestelako ustiapen gastuak.....	3.613	212	3.724	1.026
Gastu finantzario eta antzekoak.....	3	-	-	-
Aurreko ekitaldietako gastu eta galerak.....	-	3	-	-
GASTUAK	6.799	2.268	6.885	5.631
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	582	401	3.457	3.304
Ustiaetari diru laguntzak.....	6.372	1.801	2.798	1.968
Kudeak. beste sarrera batzuk.....	-	6	27	3
Bestel. interesak eta antzeko sarrerak.....	7	-	-	10
Ibilgetu materialetik eratorritako mozkinak.....	-	-	-	-
Beste ekitaldi batzuetako sarr. eta mozkinak.....	-	-	-	-
SARRERAK	6.961	2.208	6.282	5.285
Emaitza: (Galera)/Mozkina	162	(60)	(603)	(346)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.3 PUERTO DEPORTIVO EL ABRA-GETXO, SA SOZINETATEA

EGOERAREN BALANTZEA 2011-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

AKTIBO EZ ARRUNTA	7.630	ONDARE GARBIA	5.850
Ibilgetu materiala	7.630	Berezko funtsak	361
Finantza inbertsioak epe luzera	-	Kapital soziala.....	240
		Erretserbak	98
		Ekitaldiaren emaitza.....	23
		Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	5.489
		PASIBO EZ ARRUNTA	2.135
		Atzeratutako zergengatiko aktiboak	2.135
AKTIBO ARRUNTA	429	PASIBO ARRUNTA	74
Merkatar. zordunak eta kobratzeko knt.	-	Hornitzaileak	43
Diruzaintza	429	Askotariko hartzekodunak	19
		Bestelako zorrak Administrazio Publikoekin	12
AKTIBOA	8.059	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	8.059

2011-KO EKITALDIKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

Negozio zifraren zenbateko garbia	291
Bestelako ustiapen sarrerak	-
Langileria-gastuak	(52)
Bestelako ustiapen gastuak	(220)
Ibilgetuaren amortizazioa	-
USTIAKETAREN EMAITZA	19
Finantza sarrerak.....	5
Finantza gastuak.....	(1)
EMAITZA FINANTZARIOA	4
EMAITZA ZERGA AURRETIK	23
ZERGAK	-
EKITALDIAREN EMAITZA	23



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.4 KONTU BATERATUAK

A. EGOERAREN BALANTZE BATERATUA 2011ko abenduaren 31n Euroak milakotan

AKTIBOA	31.12.2011	31.12.2010	PASIBOA	31.12.2011	31.12.2010
IBILGETUA	154.601	153.247	FUNTS PROPIOAK	146.565	143.189
Erab. or. em. azp. onds. & ond.	6.118	13.604	Ondarea	90.023	90.023
Ezmateriala	3.119	1.758	Erabilera orokorrerako ondarea	(113.574)	(99.972)
Materiala	142.983	135.817	Lagatako ondarea	(126)	(126)
Lurraren Udal Ondarea.....	2.381	2.068	Aurrek. Itxien emaitza posit.....	153.264	134.218
Finantzarioa.....	-	-	Galera-irabaziak.....	16.978	19.046
			KANPOKO BAZKIDEAK	120	113
			ARRISKUETARAKO ZUZKIDURAK	9.913	8.019
			HAINBAT EKIT. BANATZEKO SARR.	100	1.423
			HARTZEKODUNAK EPE LUZERA	35.576	39.480
			Kreditu entitateekiko zorrak.....	31.586	33.556
			Bestelako hartzekodunak epe luzera .	3.990	5.924
ZORDUNAK	8.230	16.789	HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA	23.167	29.036
FINANTZA-KONTUAK	52.610	51.224			
AKTIBOA	215.441	221.260	PASIBOA	215.441	221.260

2011-KO EKITALDIAREN GALERA-IRABAZIEN KONTUA Euroak milakotan

GASTUAK	2011	2010	SARRERAK	2011	2010
Langileria-gastuak	35.278	36.898	Negozio zifraren zenbateko garbia	18.939	18.645
Ibilgetua amortizatzeke zuzk.....	4.903	4.258	Zerga zuzenak	21.480	21.189
Trafiko horniduragatik aldak.	(859)	393	Zeharkako zergak.....	1.617	1.605
Kanpoko zerbitzuak	43.249	44.263	Jasotako transf. eta dirul.	57.507	61.760
Transf. eta hitzart. diru-lag.	4.926	4.784	Kudeaketa arrunteko bestel. sarr.....	6.502	5.462
Ustiaketa mozkinak	18.548	18.065	Ustiaketa galerak	-	-
Finantza gastuak.....	392	216	Finantza sarrerak.....	1.153	933
Finantza emaitza positiboak	761	717	Finantza emaitza negatiboak	-	-
Aurreko ekitald. gastu-galerak.....	2.524	2.265	Aurreko ekitald. sarrerak eta mozkinak.....	201	2.528
Aurreko ekitaldietako mozkinak	-	263	Aurreko ekitaldietako galerak	2.323	-
Ibilgetutik eratorritako galerak	-	-	Ibilgetua besterentz. mozkina	-	1
Aparteko galerak	8	-	Aparteko irabaziak.....	-	-
Finantza emaitza positiboak	-	1	Aparteko emaitza negatiboak	8	-
Ekitaldiaren emaitza (mozkinak)	16.978	19.046			



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

**** Pertsona fisikoen eta juridikoen izenak eta identifikagarri gerta daitezkeen datuak ezabatu dira.

ALEGAZIOAK

SARRERA

2011ko Getxoko Udalaren fiskalizazio-emaitei erantzunez eta otsailaren 5eko 1/1998 Legearen, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzkoaren, 13. artikuluan xedatutakoa betez, Getxoko Udalaren alkate Imanol Landa Jaureguik ondorengo alegazioak eta frogagiriak aurkeztu ditu.

Alegazio horiek egiten hasi aurretik, egokia da agerian uztea Getxoko Udalak etengabeko hobekuntza-jarduerak egin dituela bertako barneko kontrol-sistemetan eta prozeduretan.

2011ko Txosten hau etengabeko egokitzapen-prozesua sendotzearen erakusgarri egokiena eta irmoena da. TVCP-HKEEak berak egiaztatu ahal izan duenez, 2011ko Txosten honetako espedienteen zati handiena eragiten duten material-ordenako irizpenek, aurreko urteetan abiatzen ziren espediente eta konpromisoei erantzuten die, edo bestela, 2012an eta 2013an zehar zuzendu dira.

II. TXOSTENAREN ONDORIOEI EGINDAKO ALEGAZIOAK

1. Parkeak eta lorategiak zaindu eta mantentzeko zerbitzuaren kontratua 10,8 milioi euroren zenbatekoan esleitu zen ekainaren 30ean 6 urtetarako, 2011n 2,0 milioi euroren gastua eragin du; kontratua administrazioko kontratu berezi modura gauzatu zen, zerbitzu kontratu izaki. Kalifikazio horren ondorioz, zerbitzu kontraturako ezarritako gehiengo iraupen epea gainditu da (APKLTBren arabera, 4 urte).

ALEGAZIOAK

2006ko otsailaren 9an, Kontratazio eta Erosketen saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak Txosten Juridiko bat egin zuen kontratazio-espedientea onetsi aurretik, eta bertan ondorengo irizpenak egiten ditu kontratuaren tipifikazioari dagokionez:

Kontratu hau Zerbitzuetako Kontratu gisa kontsideratzeari dagokionez, aintzat hartu behar da kontratista esleipendunak makinak jarri behar dituela, eta haien amortizatzeko bi urtetik gorako epea beharrezkoa dela, zerbitzu-kontratuaren gehienez ere onartutakoa, alegia.

Horrenbestez, adierazitakoa ikusita, eta ezabapen bidez, Kontratu Administrazio Berezi moduan sartu behar dugu, 5.2 b). artikuluan jasotakoaren arabera; izan ere, Legean ohikoak diren helburuez bestelakoa izanik, administrazio bereziko izaera du, administrazio kontratatzailearen biraketari edo trafikoko zehatzari lotzen zaiolako, eta tokiko eskumen espezifikoaren helburu publikoari zuzenean eta berehala erantzuten diolako.



Txosten juridiko hau Azpiegituren eta Zerbitzuen saileko Ingeniari arduradunak 2006ko urtarrilaren 30ean egindako txosten teknikoan oinarrituta dago, eta bertan zerbitzua betetzeko makinaria berria erosteko beharra jakinarazten da, 6 urteko amortizazio-epearekin.

Bestalde, aipatu behar da kontratu-mota horren tipifikazioa juridikoki eztabaidagarria gertatu dela, eta Epaitegiak berak egokitzat jo duela beste txosten batzuetan (Gasteiz 2006 edo Barakaldo 1995), kontratu honen kalifikazioa nahiz zerbitzu publikoaren kudeaketakoa, kontratuak gehenez ere 25 urteko iraupena izatea ahalbidetuko zuena.

Nolanahi ere, parke eta lorategiz hornitutako guneen kontserbazio nahiz mantentze-lanen kontratu berriari dagozkion pleguak, 2013ko ekainaren 11ko Gobernu Batzordeak onetsiak, hura tipifikatzen dute zerbitzuen kontratu gisa.

2. “Etxe Arrosa” izeneko zaharberritzeko espedientean, 998.029 euroren zenbatekoan esleitutakoa, ez da egiaztatu esleipenduna zenik arrazoi teknikoengatik kontratua gauza zezakeen bakarra eta honenbestez, esleipenerako baliatutako prozedura, publikotasunik gabeko negoziatua, ez dago justifikatua (SPKLren 154 d) artikulua).

ALEGAZIOAK

Arrazoi teknikoengatik Etxe Sorgindua Eraberritzeko lanen esleipenduna kontratua egikaritu zezakeen bakarra izateari dagokionez Udaleko Arkitektoak egindako justifikazio-txostenaren arabera, ondorengo adierazi behar da.

Clar Rehabilitacion SL enpresa eraikitzaileak Etxe Sorgindua Birgaitzeko obraren esleipenduna izan zen. Merkataritza-sozietate horrek ere kontratu-betebeharrei ezin izan ziren erantzun aipatutako obrarekiko, nahastuta geratu zen hartzekodunen lehiaketaren ondorioz; eta 2008ko ekainean obra utzi zuen obra bera etenda geratuz.

Getxoko Udalak ordaindu zuen azken ziurtagiria 7. zenbakia izan zen, 2008ko ekainaren 30ekoa.

Haren ostean, eta sortutako arazoa ikusita, udal-arkitekto honek ikerketa egin zuen obraren, ordainketaren eta azpikontratisten zereginen egoera zein den erabakitzeke obra eteten den unean. Horren ondorioz, 2008ko irailaren 23an txostena egin zuen, eta bertan azpikontratistek egiteke dituzten lanen balioa zehazten zen:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hornitzailea	Gauzatzeke dagoen zenbatekoa BEZ barne
1. Hornitzailea	0,00 €
2. Hornitzailea	0,00 €
3. Hornitzailea	0,00 €
4. Hornitzailea	51.919,25 €
5. Hornitzailea	0,00 €
6. Hornitzailea	0,00 €
7. Hornitzailea	0,00 €
8. Hornitzailea	68.611,16 €
9. Hornitzailea	0,00 €
10. Hornitzailea	47.618,00 €
11. Hornitzailea	24.291,00 €
12. Hornitzailea	119.275,36 €
13. Hornitzailea	20.994,20 €
14. Hornitzailea	0,00 €
15. Hornitzailea	22.821,15 €
16. Hornitzailea	5.994,88 €
17. Hornitzailea	0,00 €
18. Hornitzailea	0,21 €
19. Hornitzailea	13.487,38 €
20. Hornitzailea	71.139,34 €
21. Hornitzailea	0,00 €
22. Hornitzailea	0,00 €
Guztiral	446.151,92 €

2010eko martxoaren 12ko txosten batean, arkitekto honek sinatua, obra zegoen egoera sortzen duen kasuistika zehazten da. Hiru egoera-mota sortzen ziren, obrako lanak erabat amaituta, obrako lanak hasi gabe eta obrako lanak egikaritzen.

Egikaritzen ari ziren lanak aurreko taulako merkataritza-sozietateek hasitakoak ziren.

Horren ondorioz, materialak eta berariazko sistemak eskatzen zituzten amaitu gabeko lan-egoerak sortzen ziren eta, bateragarriak ez baziren arazo asko sor zitzaizketenak; esate baterako, banaketako eskusibak dauden lekuetan, material eta sistemen muntaketa, patenteak...

Aurrekoaren adibide argia Clar Rehabilitación SL enpresari ordaindutako 7. likidazioaren eta obrak berriz hasteko idatzitako proiektuaren aurrekontuaren arteko alderaketa da.

Obrak berriz hasteko proiektuaren 7. kapitulua eta likidazioaren 8. kapitulua alderatzen badira, ikus daiteke “Hedapen zuzeneko egokitzaile autonomoak lehen solairuan” 8.1 Ud partidan ikus daitekeen Clar Rehabilitación-i % 60 ordaindu zitzaiola, eta “Hedapen zuzeneko egokitzaile autonomoak lehen solairuan” 07.01 Ud partidan ikusten da unitate horren % 40 egikaritu gabe zegoela. Zergatik da hori garrantzitsua? Aurrekoak esan nahi du klimatizazio-aparatu, kontsola, elementu elektroniko, kondentsadore, kasete eta abarren % 60 jadanik Clar-ek jarrita zituela eta, jakina, gainerako partidaren % 40 jarritakoarekin teknikoki osagarria izan behar duela; bestela, horrek duen beste aukera da partida horretatik dagoeneko egikaritutakoa eraistea, eta ekintza horrek administrazioak diru publikoarekin egiten duen edozein jardunbide egokiaren aurka egiten du.



Gauza bera gertatzen da proiektu berriaren aurrekontuko 7. kapituluko partida bakoitzarekin, 7.02, 7.03, 7.04, 7.06, 7.07, 7.08 eta 7.09 partidetan % 20 egikaritzeke zegoen eta 7.05ean % 70.

Klimatizazioko partida adibidetzat jarri da, nolana ere, arazo bera zegoen instalazio elektrikoarekin, aire-erazketarekin, iragazgaiztearekin, igeltsuekin, isolamendu termikoarekin, morteroarekin... Egiaztatzeko Clar-i ordaindutako 7. ziurtagiria lanak berriz hasteko idatzitako proiektu berriko aurrekontuarekin alderantzea baino ez dago.

Hortaz, agerikoa da bi aukera zeudela:

1.- Azpikontralistek jada egikaritutako 394.092,00 euroak eraistea, lurrera botatzea eta zaborretara bidaltzea (datu hori irailaren 23ko txostenetik atera dugu, Clar enpresak azpikontralistekin duen zorra adierazten duena), eta jada egikaritu diren elementu guztiak berriz eraikitzea.

2.- Azpikontralistek hasitako lanak egitea.

Era berean, egikaritzen ari diren obra-lanetan beste gertaera esanguratsu bat dago, hau da, obra bat osatzen duten elementuetako bakoitza egikaritzeko lanetan, egikaritze-gremio bakoitzak horiek nola egin erabakitzen du, haren esperientziaren, ezagutzen, materialen eta abarren arabera. Horrela, diziplina bat da eraikuntza, eta ez zientzia, eta ezaugarri nagusia da elementuak egiteko hainbat modu zuzen daudela. Beraz, obra-lanetan parte hartu duen gremio bakoitza beste talde batzuek beste modu batera egingo lituzketen "ezagutzen" jabe da.

Horrenbestez, ez da batere komenigarria gremio-talde berriak sartzea hasitako eta bukatu gabeko lanetan, obrak egiteko modu ezberdinak izango genituzkeelako, bateraezinak askotan. Ondorioz, atzerapenak, zalantzak obretan eta kostu berriak sortuko lirateke, eta, beraz, kalte ekonomikoak ez ezik, kalte teknikoak ere izango genituzke, obraren akabera-kalitateari eragiteaz gain.

Etxe Sorginduak legediak ezarritako babes-mailarik altuena du, haren kategoria 89/2001 Dekretuaren arabera Babes Berezia delako. Hortaz, bertan egindako edozein esku-hartze arreta handiz gauzatu behar da, eraikinak duen balioarengatik. Horrek txosten honetan aurretiaz esandakoa azpimarratzen du, hau da, egikaritzeko modu eta material desberdinek eraikina eta haren ondare-balioa kalte dezakete. Hortaz, aipatutako arrazoi tekniko guztiak kontuan izanik, obra egikaritzen ari zen azpikontralista-batasunari soilik agin dakioko proiektua amaitzea.

3. Getxo antzokia berriaren eraikuntza proiektuaren eta obra zuzendaritzaren erredakzioa 2007ko maiatzaren 22an esleitu zen 1,1 milioi euroan eta 2011ko apirilaren 20an aldarazi zen 946.802 euroan (% 86).

Getxo Antzokia (aparkalekua) berriaren II. Faseko lanak 2010eko ekainaren 29an esleitu ziren 2,9 milioi euroren zenbatekoan. 2011ko otsailaren 2an obra osagarri modura izapidetutako obra onartu zen, 605.835 euroan, eta 2011ko irailaren 16an 267.177 euroren aldaketa bat; horrek guztiak batean % 30eko igoera eragin du.



Romoko biltegi nagusia zaharberritzeko espedientea 2009ko abenduaren 1ean esleitu zen 902.982 euroan eta 2010eko azaroaren 2an aldatu zen 461.149 euroren zenbatekoan, (% 51).

Igoera honek SPKLn jasotako lizitazio printzipioak urratzen ditu; izan ere, gogoan izan behar da kontratuak aldatzeko eskumena betiere zuhurtziazko mugen barruan gauzatu behar dela, kopuruaren igoerak kontrataren bolumen ekonomikoa ez itxuraldatzeko moduan.

ALEGAZIOAK

Aipatzen diren kontratu-espedienteak ondorengo datetan esleitu ziren: 3102 – 20.11.2008 / 3771 – 29.06.2010 / 3522 – 01.12.2009.

Beraz, kontratu-aldaketei dagokienez, espediente horiek guztiek Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea bete behar dute eta, zehazki, 202. artikulua, 2011ko martxoaren 6ra arte indarrean zegoen idazketaren arabera. Artikulu horrek dio aldaketak egin ahal izango direla: “interes publikoko arrazoiengatik eta ezusteko kausei erantzuteko, eta behar bezala justifikatu beharko da espedienteetan”. Araudiak ez du inolako diru-mugarik ezartzen (2011ko martxoaren 6an, Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legea indarrean sartu zenetik bestela ezarrita dago).

Halaber, egiaztatu da aipatutako espedienteetan ezusteko kausak eta interes publikoko arrazoiak daudela bermatzen duten dagozkion txosten teknikoak eta nahitaezkoak diren txosten juridikoak daudela.

Aldaketa hauek indarreko araudiaren arabera egin dira, eta gure ustez, hori azpimarratu beharreko alderdia da, Kontu Publikoen Euskal Epaimahaiaren beste txosten batzuetan adierazi bezala (Bilbo 2012, esaterako).

Gainera, balorazioa behar bezala egiteko, uste dugu beharrezkoa dela kontuan hartzea Udalak tramitatutako kontratu kopuru handia (2011n abiarazitako 66 prozedura ireki eta negoziatutako 40 prozedura) eta Epaimahaiak egindako lanak aurreko ekitaldietan esleitutako kontratuak hartzen dituela. Testuinguru horretan, garrantzitsua da azpimarratzea hiru kontratutan bakarrik egin direla zenbateko handiagoak ezartzeko aldaketak.

Espediente bakoitzean behar bezala justifikatuta jasotzen diren interes publikoko arrazoiak eta ezusteko kausei erantzuteko arrazoiak dagokienez, ondoren azaltzen direnak dira.

Getxo Antzoki berriaren eraikuntza-proiektua idaztearen eta obra-zuzendaritzaren ordainsariak

Udaleko Arkitektoak egindako justifikazio-txostenaren arabera, kontratuaren aldaketa eragin duten arrazoiak honakoak dira:

Getxo Antzokiaren proiektua idaztearen eta obra-zuzendaritzaren ordainsariei buruzko 2011ko apirilaren 20ko kontratua arrazoi hauengatik aldatu zen:



Balio Erantsiaren gaineko Zerga igo izana, 2010erako Estatu Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 26/2009 Legea indarrean sartzean BEZa % 16tik % 18ra igo baitzen. Berehalakoan gertatutako zio bat da, eta Getxoko Udalak ezin zuen inolaz ere aurreikusi.

Proiektua garatzeko eta diseinatzeko faseetan zehar, sentsibilitate desberdinei entzun zaie, haien proposamenak aztertu eta horiek guztiak proiektua balioan jartzeko modu batean txertatzen ahalegindu. Ondorioz, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren behin-behineko aldaketa idatzi zen, auzokideen aldarrikapenetako batzuk jasota. Behin-behineko aldaketa idazteko lanak eta horretarako behar diren izapideak, agiriak, testu bateginak, herritarren parte- hartzea... ez zeuden aurreikusita proiektuaren eta obra-zuzendaritzaren arkitekto esleipendunaren kontratuan, eta arrazoi teknikoengatik, behin-behineko aldaketa idazteko enkargua proiektua ezagutzen duen bati soilik agindu ahal zitzaion. Izan ere, proiektua ezagutzen ez duen batek ezin du herritarren eskakizunen parte bat jaso, horiek proiektuan txertatu eta aldi berean antolamenduaren behin-behineko aldaketa idatzi herritarren eskakizunak kontuan hartzen dituen proiektua islatuta.

Zergatik ezin du proiektua ezagutzen ez duen batek egin? Diseinu-lanak ez dira linealak, hots, ez dute hasiera eta amaiera bat eta ez dituzte etapak betetzen, baizik eta joan-etorri prozesuak dira, espiraletan atzera eta aurrera egiten dutenak emaitza bat lortu arte. Beste modu batera esanda, herritarren eskakizunen parte bat proiektuan sartzeko Plan Orokorra aldatu behar da, eta, era berean, hori aldatzerakoan proiektuan esku hartu behar da. Horrek, aldi berean, Plan Orokorra berriz planteatzera darama, eta, horrela, espiral bat sortzen da, hirigintza-araudiaren eta proiektuak egiteko araudiaren oreka lortu arte (oso desberdinak biak). Agerikoa da proiektua ondo ezagutzen duenak bakarrik egin dezakeela lan hori; bestela, amaierako emaitza zentzugabekeria hutsa litzateke, antolamenduaren zein proiektuaren aldaketari dagokienez.

Horrez gain, esan behar da aurrekoa aurreikusi gabeko gertaera bat dela, proiektua hasi aurretik herritarren sentsibilitate, iritzi eta behar guztiak jasotzea eta gero horiek proiektuan islatzea senean dagoen inork sinesten ez duen utopia baita. Izan ere, aurretik azaldu bezala, ez da behin galdetzea nahikoa duen eta behar, sentsibilitate, iritzi guztiak ezagutzen dituen prozesu lineal bat, baizik eta prozesu espirala eta ziurtasunak baino, joan-etorriak eta zalantzak ditu.

Aurreko guztia dela eta, proiektuan aurrera egiten den bakoitzean, zinegotziei, alderdi politikoei, herritarrei, elkarteei... azaldu behar zaie, eta hori proiektua ezagutzen duenak egin dezake soilik. Era berean, proiektua idatzi duenak, hau da, proiektua ondo ezagutzen duenak soilik entzun ditzake pertsona horiek proposatzen dituzten kontuak, eta proposamen horiek proiektu-aldaketen bidez islatu. Halaber, ezinezkoa da azalpen-prozesu hori modu zenbagarrian aurreikustea. Proiektu-lehiaketarako plegua idaztean, ezinezkoa da jakitea azalpen bat, bi edo bi mila beharko diren. Ez da bideragarria, ezin da aurreikusi eta berehalakoan gertatutakoa da, ez baitakigu proiektua nolakoa izango den eta zer forma hartuko duen, diseinatzerakoan ere aldaketak izaten baititu, eta alderdi horiek, hau da, proiektuaren itxurak, azaldu beharrekoari zuzenean eragiten diote.



- . Kontratua aldatzeko beste arrazoi objektibo bat izan da obraren epea luzatu dela. Proiektua idazteko eta obra-zuzendaritzarako lehiaketaren baldintza-pleguak kontzeptu hori barne hartzen du, eta, beraz, aurreikusitako gertaera da.

Getxo Antzoki berriaren II. Fasea (aparkalekua)

Obra osagarria justifikatzen duen txosten teknikoan jasotzen denaren arabera, "obrak egikaritu bitartean eta ezustean, ikusi da interes publikoaren onerako eta obrak ondo amaitzeko, komenigarria dela, behin aparkalekuaren egituraren azken forjatua eta dagokion iragazgaiztea amaitzen denean, Andres Cortina kalean zeharreko pasabidea lehenbailehen egokitzea, pasabide hori urbanizatuz eta jendearentzat behin betiko irekiz, oinezkoei denbora luzez eragozpenak eta dimentsio murriztapenak sortaraztea saihesteko, kanpoko urbanizazioaren azken fasea egin bitartean".

Aldaketari dagokionez, 267.177 euroko kostua ekarriko du; aldaketa hori egin beharraren arrazoia da Basagoitiko beheko zonan aurreikusitakoa baino lurrazpiko ur-iragazte handiagoak aurkitu izana; inguruabar hori ezin aurreikusizkoa da, indusketa guztiz egiten den arte. Gainera, industerakoan, edateko uraren sarearen zati bat berritu beharra zegoela ikusi zen egoera txarrean zegoelako, eta une hori aprobetxatu zen beranduago beste jarduketa bat egin behar izatea saihestearren. Halaber, zonako eragindako bizilagunen eskaerei erantzunez, trafikoa kontrolatzeko eta irisgarritasuna hobetzeko jarduketa batzuk egin ziren.

Erromoko kolektore orokorra berritzea

Espedientean jasotzen den bezala, ondorengoak dira proiektuan aurreikusitako unitateen neurketak aldatzen dituzten aldaketak sartu izanaren arrazoiak:

- Kresaltxu eta Santa Eugenia kaleetan bide-zoruak saneatzeko beharra, behin proiektuan aurreikusitako zanga ireki eta kolektorea jartzeko obrak hasita, bidea egoera txarrean dagoela ikusita. Errepidearen saneatze osoa egitea erabaki da, asentamendu berriak saihesteko.
- Kresaltxu kalea, Santa Eugenia kaletik Aurrezki Kutxa kalera arte, zolatzeko beharra; baita zona horretako argiteria publikoa berritu eta egokitu beharra ere.
- Santa Eugenia osteko aparkalekua egokitzeko beharra; eraso-putzua eta tinkatze bidez 1200 mm-ko diametrodun hodizko kolektorea egiteko beharrezko instalazioak kokatuta egon diren zona saneatzea.

4. Getxo Antzokia berriaren II. Faseko lanen (aparkalekua) kontratazio espedientearen deialdia, 2,9 milioi euroan esleitutakoa, ez zen ez DOUEn, ez BOEn argitaratu eta horrek SPKLren 74. artikulua urratzen du, izan ere, honek agintzen du fase bakoitzeko esleipenean ezarri behar diren publikotasun arauak fase guztien balio metatuaren arabera zehaztuko direla, kasu honetan 32,1 milioi euro egiten dutenak.



ALEGAZIOAK

Aparkalekuko obren kontratu-espeditentea abiarazi eta hori argitaratu ondoren onartu zuen Osoko Bilkurak Getxo Antzokiaren Oinarrizko Proiektua, non aparkalekua txertatu zen, fase bat gehiago bezala.. Horretarako, egin nahi zen obraren (aparkalekua) lizitazioaren zenbatekoa kontuan hartu zen; Sektore Publikoko Kontratuen Legeak erregulazio bateratutzat jotzeko ezartzen dituen mugak gainditzen ez zituenez, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Getxo Antzokiaren Oinarrizko Proiektua onartu ondoren, Proiektu horretan sartzen diren fase guztiak behar bezala argitaratu dira Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean.

5. Kontratu txiki eta publikotasunik gabeko prozedura negoziatu modura izapidetutako erosketak aztertzean, 1,5 milioi euroren zenbatekoa egin duten gastuak azaleratu dira, 2011n erregistratutakoak, publikotasundun prozedura negoziatu edo prozedura ireki bidez izapidetu behar ziratekeenak (A.16.2 Eranskina).

ALEGAZIOAK

Eraginkortasunari eta gastuaren austeritateari dagozkien irizpideak aplikatuz, hainbat gastu kontratu-espeditentara bideratzen ari dira, lehia handiagoa sustatuko duten prozedurak jarraituz. Kontratu txikiei dagokienez, 738/2013 Dekretu bidez kontrataziorako ondorengo jarraibideak ezarri dira:

- Kontratazioa eskatzen duen Sailaren edo Unitatearen eskaerarekin batera, gutxienez hiru aurrekontu aurkeztu beharko dira obren kasuan eta bi aurrekontu gainerako kontratuen kasuan.
- Esleipena egiteko aukeratutako aurrekontua ez bada ekonomikoena, aukera hori egin izana justifikatzen duen txostena aurkeztu beharko da, dagokion teknikariak izenpetuta.
- Ezingo da kontratu txiki bat egikaritzen hasi kontratu hori Alkatetzaren dagokion Dekretu bidez esleitzen den arte; horrela egin ezean, jarduketak baliogabetuko dira.

Kontratu txiki bidez tramitatutako espeditente kopuruari dagokionez, asko gutxitu direla ikusi da.

DIRU-LAGUNTZAK

6. Udalak 2011ko urtean zehar 255.602 euroren laguntzak eman zizkien irabazi asmorik gabeko zortzi erakunderi modu zuzenean, publikotasun eta lehiarik gabe eta printzipio horiek ezartzea eragotziko zuten arrazoiak egiaztatu gabe (DLOren 22.3 art.).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOAK

Bizarra Lepoan udalerriko euskara elkarte bakarra da eta, halaber, udalerrian euskarazko udalekuak eskaintzen dituen bakarra. Ekintza hori 2008an onartutako Getxoko Udalaren Euskara Planean jasota dago, haurren aisialdiko eta udalekuetako komunikazio-hizkuntza euskara izatea lehentasuntzat jotzen delako. Beraz, Getxo udalerrian produktu hori eskaintzen duen beste erakunderik ez dagoenez eta, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean onartutako euskarari dagozkion politiken ikuspuntutik helburua interes publikokoa eta apartekoa denez, justifikatuta dago, gure ustez, lehentasuneko eskaintzat jotzea. Horregatik, kasu honetan ezinezkoa da lehia sustatzea.

Beste diru-laguntzei dagokionez, udalerrri mailako kirol-eskola gisa, behe-mailako taldeak (bigarren urteko infantilak, kadeteak eta gazte-mailakoak) dituzten federatutako futbol klub **guztiekin** izenpetutako hitzarmenak dira, futbolaren modalitatean lehiaketako Kirol Federatuaren programa garatzeko, era horretan, oinarrizko futbola sustatuz federatutako kategorietan (Bigarren urteko Infantilak, Kadeteak eta Gazte-mailakoak).

Lehenengo hitzarmena 65.000 eurokoa da eta Getxo-Erromoko 3. barrutiko bi klubekin sinatu da (Areeta eta Erromo Futbol Klubekin, hain zuzen ere).

Bigarren hitzarmenari dagokionez, 150.000 eurokoa da eta Getxoko 1. eta 2. barrutietako federatutako bost klubekin izenpetu da (Getxo CD, Galea CD, Bizkerre FT, Neguri CF eta Irurgitxi CF).

Horiek dira oinarrizko futbolari laguntzeko sustatu beharreko kategoriekin lan egiten duten futbol klubak. Bestalde, espazioen erabilgarritasunari eta kirol antolaketari dagokionez barruti ezberdinen artean dauden ezberdintasunak eta klub ezberdinen artean lankidetzarako dagoen borondatea dela eta, komenigarria ikusi zen berezitateko bi hitzarmen sinatzea; hitzarmen bat 1. eta 2. barrutietarako, eta beste bat 3. barrutirako. Finantzatu beharreko zenbatekoa zehazteko, klub bakoitzaren kide kopurua, hitzarmena sinatu duen klub bakoitzaren talde bakoitzak ze kategoriatan jokatzen duen eta aurrez aipatutako espazioen erabilgarritasuna eta kirol antolaketa ezberdinak hartu ziren kontuan.

ONDAREA

7. Getxoko Udalak ez du lurzoru osoaren ondare publikoaren erregistrorik, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legearen 112.3 eta 113 artikuluek agintzen duten moduan.

ALEGAZIOAK

2011. urtean, Udalaren Lurzoru-ondarea osatzen duten ondasunei dagozkien datuak dagokion bezala jasota daude Ondasun eta Eskubideen Udal Inbentarioaren aplikazioan, baita horiei dagokionez gertatu diren intzidentziak ere. Bestalde, eta Udalaren Lurzoru-ondareari atxikitako baliabideei dagokionez, udal-kontularitzan identifikatuta daude. Beraz, Udalaren Lurzoru-ondarea bi tresna horiekin guztiz trazatu ahal izatea ahalbidetzen da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Ustiatze-erregistroari dagokionez, 2012. urteaz geroztik adierazitako alderdiak hartzen dituen tresna informatiko bat ezarri da.

II.1.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK: KULTUR ETXEA, ANDRES ISASI MUSIKA ESKOLA, GETXO KIROLAK ETA JESUSEN BIHOTZAREN UDAL EGOITZA ETA EL ABRA-GETXO KIROL PORTUA, SA SOZIJETATE PUBLIKOA

LANGILERIA

Kultur Etxea

8. Udalaren plantillan 15 funtzionario plaza daude, sortu zirenetik bete gabe daudenak (lehenak 1992an), behar bezala betetzeko dagokion enplegu eskaintza eta deialdia egin ez dela, EFPLren 23. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Aipatutako postu horiek lanpostu hutsa bete arte aldi baterako kontratua duen langileak betetzen ditu.

ALEGAZIOAK

Gobernu-talde honen asmoa egoera erregularizatzea bada ere, une hauetan ezinezkoa da hori, 2013. urterako Estatu Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legeak ezarritako mugen ondorioz. Izan ere, Lege horrek Lan Eskaintza Publiko berriak onartzea eragozten du.

9. 2011ko abenduaren 31n 6 langile daude obra edo zerbitzu bidezko kontratua 2009an egin zitzaizenak, horien aldi baterako izaera desitxuraturuz. Enpleguaren hazkuntza hobetzeko ekainaren 9ko 5/2006 Errege-Dekretu-Legeari eta Langileen Estatutuaren 15. Xedapen Gehigarriari jarraiki, kontratu hauek mugagabe ez finko bihurtu dira 2009an, EEP deitu gabe.

ALEGAZIOAK

Gobernu-talde honen asmoa egoera erregularizatzea bada ere, une hauetan ezinezkoa da hori, 2013. urterako Estatu Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legeak ezarritako mugen ondorioz. Izan ere, Lege horrek Lan Eskaintza Publiko berriak onartzea eragozten du.

Andres Isasi Musika Eskola (Musika Eskola)

10. Musika Eskolaren LZk ez ditu aurrekontuan zuzkidura duten 4 lanpostu barne hartzen, bitarteko kontratua duten langileek harik eta lanpostu hutsa legeak agindutakoaren arabera bete arte okupatzen dituztenak; horrek EFPLren 14.1 artikulua urratzen du.



ALEGAZIOAK

Trikitixa eta txalaparta, alboka eta pandero, jazz eta musikoterapia irakasteko lanpostuak dira, eta Musika Eskoletan soilik jasotzen dira.

Eskola horiek emateko, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailburuaren Gaikuntza-diploma eduki behar da. Irakaskuntzarako gaikuntzak dira, baina ez dira titulu ofizialak, eta postu horiek Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera izan beharreko sailkapenari buruzko zalantzak genituen. Indarreko talde-hitzarmenean, irakasleak goi-tituludun gisa sailkatuta daude, postu hori betetzeko goi-mailako titulua eskatzen delako.

Gabezia hori Lanpostuen Zerrenda aldatzean zuzenduko da, postu horietarako plaza zehatzak sartuko baitira.

Jesusen Bihotzaren Udal Egoitza (Udal Egoitza)

11. Udal Egoitzaren plantillan 45 plaza daude, sortu zirenetik bete gabe daudenak (horietako batzuk 1995ean), behar bezala betetzeko dagokion enplegu eskaintza eta deialdia egin ez dela, EFPLren 23. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Aipatutako postu horiek lanpostu hutsa bete arte aldi baterako kontratua duen langileriak betetzen ditu.

ALEGAZIOAK

Gobernu-talde honen asmoa egoera erregularizatzea bada ere, une hauetan ezinezkoa da hori, 2013. urterako Estatu Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legeak ezarritako mugen ondorioz. Izan ere, Lege horrek Lan Eskaintza Publiko berriak onartzea eragozten du.

12. 2011ko ekitaldian, 13 pertsonari aldi baterako 188 lan kontratu gauzatzeko 2002 eta lehenagoko urteetako lanbide maila ezberdinetako lan-poltsak baliatu dira (garbitzaileak, sukaldariak, administrazio laguntzaileak), deialdiei publikotasunik eman gabe osatutakoak; berebat, 15 pertsonarekin aldi baterako beste 81 kontratu egiteko TEAra igorritako curriculumak baliatu dira. Bi kasuetan ere, ez dira Funtzio Publikorako sarbidean buru egiten duten berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gorde.

ALEGAZIOAK

Garbitzaileen, administrari laguntzaileen eta sukaldarien kategoriei dagozkion kontratazioak Enplegu Publikoko Zerbitzuen burtsen bitartez egin dira, dagokion hautapen-probekin.

Euskal Herri Administrazioetako langile-funtzionarioen Lanpostuen Hornikuntzarako Araudia onartzen duen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 58.3. artikulua baimen espresa ematen du behin-behineko langileak hautatzeko enplegu-zerbitzu publikoak erabiltzeko, eta, horrenbestez, Herri Administrazioaren oinarritzko kontratazio-arauak bete ziren.



Adierazi behar da kategoria horiek txikiak direla Udal Egoitzaren barruan, langile-kopuruari dagokienez: 4 sukaldari (% 5), 3 administrari laguntzaile (% 4) eta 4 garbitzaile (% 5).

Curriculumaren bitartezko kontratazioak une oso zehatzetan eta salbuespenetan baino ez dira egin (uda, Aste Santua), ezinezkoa izan denean langileak burtsa ofizialetatik edo subsidiarioetatik kontratatzea, erabat agortuta daudelako eta erabat beharrezkoa zelako kontratazioa egitea laguntza-zerbitzua ematen jarraitzeko.

ALEGAZIOAK

Ez dago 2011ko irailaren 20tik (egun horretan hartzen du erretiro partziala) partzialki erretiratu den langileari orduen dagokion %15 egin gabe 2011n ordaindutako aparteko lizentziarik eman denaren frogarik. Egia esan, langile horrek zegokiona baino lanegun gehiago egin zuen 2011n, lan pilaketagatik eta erreleboa eman diona hasi izanagatik. Honako alegazioen aurrean, erretiratuaren 2011ko fitxatze elektronikoen kopia aurkezten da; fitxatze horiek, akatsa zuzentzeko, ordaindutako aparteko lizentziarik ez dagoela frogatzen dute.

KONTRATAZIOA (ikus A.16)

Kultur Etxea

13. Getxoberri eta Gazteak udal aldizkariak filmatu, inprimatu, tolestu, paketatu eta garraiatzeko espedientea, bi urtetarako 212.431 euroren zenbatekoan esleitutakoa, ez da argitaratu ez DOUEn, ez BOEn ere eta horrek SPKLren 126. artikulua urratzen du.

ALEGAZIOAK

Baiki, hutsegite baten ondorioz, espediente honi zegokion publizitatea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean bakarrik argitaratu zen. Haien estimatutako baloreagatik hala errekeritzen duten tramitatutako gainerako espediente guztiak Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Hona hemen Getxoko Udalaren 2011ko abenduaren 31n gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikinean, data horretan itxitako Egoera Balantzean eta Funts Propioetan eragina duten doiketak:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	AURREKONTUA		_ONDAREZKOA_	
	DIRUZAINZA GELDIKINA	AKTIBOA	PASIBOA	FUNTS PROPIOAK
Ekitaldiko edo aurreko ekitaldietako sortutako eskubideak eta 2011.12.31n erregistratu gabeak:				
A.4 Udalkutxa 2011ko likidazioa	-	-	2.172	(2.172)
A.12 Udalkutxa 2009ko likidazioa	(648)	-	-	-
A.3 BBUPren 2011ko 4. hiruhil. sarrerak	-	1.936	-	1.936
A.3 Aurreko urteetan oker erregistratutako BBUPren sarrerak	(876)	(876)	-	(876)
A.3 2011ko 4. hiruhil. likid. & 2011ko likid. jabetza pub. okup. tasag..	-	133	-	133
Beste batzuk:				
A.9 Sarrikobasoko aprobetxamenduetan aldeak	(2.437)	-	2.437	(2.437)
A.14 Aurrekontuz kanpokoetan hirigintz. aprob. aldeak	1.538	-	(1.538)	1.538
A.17 Finantzaketa desbideratzeak	1.900	-	-	-
GUZTIRA	(523)	1.193	3.071	(1.878)

ALEGAZIOAK

2011ko ekitaldia itxi ostean jakin izan genuen erabat kitatuta zegoela Udalak ekitaldi horretan hitzartutako zerga-bilketan (Udalkutxa) zuen partaidetza, eta, ondorioz, 2012an erregistratu da.

2009ko (negatiboa) eta 2010eko (positiboa) kitapenetatik itzuli beharreko zenbateko garbia aurrekontuan erregistratuko da, Bizkaiko Foru Aldundiak zenbateko horretako kenketak egiten dituen data berarekin.

Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak kudeatzen dituen zabor-bilketen, uren eta estolderiaren 2011ko 4. hiruhilekoko tasei dagozkien diru-sarrerei dagokienez, 2012ko abenduaren 31n ez zeuden erregistratuta Partzuergoak hiruhilekoan behin kitatzen dituela, eta, ondorioz, hurrengo urteko ekainera arte Udalak ez dauka aurreko ekitaldiko hiruhilekoaren informaziorik.

Tasa horietan 876 mila euroko erregistro-hutsegitea 2012ko ekitaldian zuzendu da.

Sarrikobaso Egikaritze-unitatearen aprobetxamendu-aldeei dagokien gastuari buruz, Udalaren irizpidea da gastua sortzen dela Udalak birpartzelazio-proiektuan dituen betebeharrak ekonomikoak behin betiko ezartzen dituen akordioak onartzean. Akordio hauek 2012an sinatu dira, eta, beraz, ekitaldi horretan erregistratu da gastua.

Hirigintza-aprovetxamenduen arteko aldeak aurrekontuan erregistratzeari dagokienez, Udalaren irizpidea da alde horietatik eratorritako kobrantzak eta ordainketak ez direla diru-sarrerak, ezta gastuak ere, Udala bitartekaria baino ez baita egikaritze-unitatearen artean; batzuk defizitarioak dira eta beste batzuk soberakindunak, eta saldo garbia zero da.



2. Ez dago euskarri egoki edo behar hainbatekorik Udalaren eta Toki Erakunde Autonomoen egoera balantzean jasotako Ibilgetuaren zifrak 2011ko abenduaren 31ko ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen duen ezagutzeko bide emango duenik; ez eta, galera-irabazien kontuan jasotako ibilgetua amortizatzeko zuzkidura egokia den ere.

ALEGAZIOAK

Udalak eskubideen eta ondasunen inbentario eguneratua dauka, nahiz eta kontabilitateko ondare-sistemarekin loturarik ez duen, Memoriaren 2.1. oharrean jasotzen den bezala. Bertan, adierazten da, urteko kontuak erakundearen ondarearen, egoera finantzarioaren eta azken emaitzen isla fidagarria eman dezaten prestatu diren arren, higiezinaren kontuak erregularizatzeko daudela, eskubideen eta ondasunen inbentarioaren bidez kontuak era jarraituan kontrolatzea ahalbidetuko duen sistema informatikoa instalatu arte. Sistema informatikoa, halaber, aukera emango du erosketak, besterentzeak eta bajak eta inbentarioko eta kontabilitateko azpisistemetan amortizazioak eta balio-zuzenketak sistematikoki erregistratzeko. Sistema 2013ko ekitaldi amaierarako ezarrita egon liteke.

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

III.1 UDALA

III.1.1 AURREKONTUA, LIKIDAZIOA ETA KONTABILITATEA

KONTU OROKORRA ETA KONTABILITATEA

- *“Bermeak eta jasotako gordailuak” aurrekontuz kanpoko kontzeptuak oso zaharrak diren saldoak jasotzen ditu (zenbaitetan, 1969koak), nekez eskagarri direnak. Komenigarria litzateke dagozkien idazpuruetan kontabilizatutako berme edo gordailuen eskagarritasun maila aztertzea eta kasua balitz, itzuli edo erregularizatu egon beharko lirateke aurrekontura txertatuz.*

ALEGAZIOAK

Erreklamazioak egon daitezkeela ikusita eta zuhurtzia irizpide izanik, Udalak erabaki du ez dela egokia ordaindu beharreko kontu hauek ixtea; baina, Auzitegiaren gomendioari jarraituz, 2013ko ekitaldian saldo horiek aztertuko ditugu.

III.1.2 SARRERAK

- *Tasak eta bestelako sarrerak*

Zabor bilketa eta estolderia tasen likidazioa eta diru-bilketa Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoak egiten du eta aldi berean, tasa hauei dagozkien erroldak kudeatzen ditu. Errolda hauek Udalak onartu eta argitaratu behar dituela uste dugu.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOAK

Auzitegiaren gomendioari jarraiki, Udalak zabor-bilketako eta estolderiako tasei dagozkion erroldak onartu eta argitaratuko ditu 2014ko ekitalditik aurrera.

III.1.3 LANGILERIA

- Lanpostuen Zerrenda

Bestetik, Udalaren 2011ko abenduaren 31ko LZn bost lanpostu daude, zeinaren betetzeko moldea izendapen askea den, alor ezberdinetako arduradunen postuak. Lanpostu hauetako hiru errekurritu egin dituzte eta EHJANren 981/2011 epaiak adierazi du ez dela behar hainbat justifikatu sistema hau erabiltzeko baldintzak betetzen direnik. Udalak 2012an LZ aldatu zuen hiru lanpostu hauei zegokienez eta izendapen asketik lehiaketara aldatu zuten zuzkidura moldea.

Honenbestez, txosten hau idatzi dugun datan indarrean zegoen LZk 2 lanpostu barne hartzen ditu, lanpostuak betetzeko sistema izendapen librekoa dutenak; ordea, ez da lanpostu horien apartekotasuna eta erantzukizun berezia edo zuzendaritza izaera justifikatu, EFPLren 46.3 b9 eta d) artikulua aitapagai duena

ALEGAZIOAK

Indarreko legediak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 981/2011 epaiak xedatutakoaren arabera, legeak onartu egiten du lanpostuak izendapen aske bidez hornitzeko sistema, eta lege-aurreikuspen hori gauzatuz, 2011ko amaieran indarrean zegoen Lanpostuen Zerrendan izendapen aske bidez 2 postu soilik hornitzea aurreikusten da, hau da, zuzkiduren % 0,05 baino gutxiago (beste erakunde publiko batzuen kopuruen oso azpitik dago hori). Epaiak zuzen betearazi zen, eta, hortaz, ezin da eragindako postuetan baino gehiagotan aplikatu.

Adierazi behar da errekurtsioa sorrarazi zuen eskaerak hasiera batean Lanpostuen Zerrendan izendapen aske bidez hornitu beharreko bost postuak barne hartzen zituela; baina, gero, hiru postutara mugatu zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak eta salatzaileak ez dute inongo momentutan aitortu arrazoituta ez dagoenik gainontzeko beste bi postuak izendapen aske bidez hornitzeko erabakia.



- *Ordainsariak*

Udalak ez dizkio Foru Ogasunari aitortzen gizarte zerbitzu kontzeptuko diruzko ordainsariak, nahiz salbuetsita dauden. Indarreko arautegia betetzeko, Udalak langileen ordainsari guztien berri eman behar dio Foru Ogasunari.

ALEGAZIOAK

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi zuen azaroaren 20ko 207/2007 Foru Dekretuaren 127.2 d) artikulua, besteak beste, zera ezartzen du: aurre-aurreko urtean egindako atxikipen eta konturako sarreraren urteko laburpena aurkeztu behar duela eta laburpen horretan kargapetik salbuetsitako dietak eta salbuetsitako errentak jaso beharko dira, besteak beste.

Gizarte laguntzak kargapetik salbuetsitako errentatzat edo PFEZn kargapekoak ez diren errentatzat jotzen ziren, laguntzen helburua osasunaren tratamendua edo osasuna berreskuratzea zelako, ulertzen baita ez direla aberastasun iturri, haien helburua aipatutako tratamendua edo osasuna berreskuratzea baita.

Gainera, badago langileei ordaindutako gizarte laguntzei buruzko 2008ko uztailaren 1eko Bizkaiko Foru Ogasunaren kontsulta bat, osasun zerbitzu publikoak edo dagokion mutua estaltzen ez dituen gaixotasunekin lotutako zerbitzuen gastuengatik emandako laguntza ekonomikoak ez direla Zergari atxikita errentatzat joko dioena, beti ere, osasun tratamendura edo osasuna berreskuratzea bideratzen badira, onuradunaren osasuna berreskuratzeke dagokion osasun laguntzarako formulen erabilera gisa ulertuta.”

Beraz, ogasunak ez dituen espresuki salbuetsitako errentatzat kalifikatzen, ulertzen genuen ez zela derrigorrezkoa horien zenbatekoak sartzea;

Nolanahi ere, alderdi hori 2013ko ekitaldian zuzendu da.

- *Altak*

2011n zehar programako bitarteko funtzionario bat kontratatu da 2004an osatutako lan poltsa batetik, LANGAIk aurrez hautatutako izangaiak abiaburu hartuta; langile horrek altan jarraitzen du txosten hau idatzi dugun datan. Lan poltsak berri behar lirateke, enplegu publikorako sarbidea arautzen duten printzipioak betetzeko.

ALEGAZIOAK

Kontratazioa premiazkoa zenez, ezin izan zen horretarako prozesua deitu, eta, horrenbestez, beste administrazioko lan-burtsetara jo genuen, lan-burtsen kudeaketarako irizpideen indarreko instrukzioak ahalbidetzen duen moduan. Bilboko, Portugaleteko, Santurtziko, Basauriko eta Barakaldoko Udalei kontsulta egin ostean, Barakaldok bakarrik zuen lanpostu honetarako lan-burtsa, baina agortuta zegoen. Horregatik, azkenean 2004ko burtsara jo genuen.



Nolanahi ere, Getxoko Udala lan-burtsak berritzen ari da, 2009ko urriaren 30ean Udalbatzak onartutako Enplegu Planaren ondoriozko Lan-eskaintza Publikoaren bitartez, eta berritze horretan, Kontu Publikoen Euskal Epaimahaiaren gomendioan aipatutako burtsa ere badago.

1999 eta 2004 bitartean udalak 25 pertsona kontratatu zituen obra edo zerbitzu kontratu bidez eta 2009ra arte eutsi die kontratu horiei; horrek desitxuratu egiten du kontratuen aldi baterako izaera. Hazkuntza eta enplegua hobetzeko ekainaren 9ko 5/2006 Errege Dekretu Legeari eta Langileen Estatutuaren 15. XGri jarraiki, kontratu hauek mugagabe ez finko bihurtu dira 2009an. Plaza hauek 2010eko ekitaldian onartutako EEPn barne hartuak daude eta deialdia egin zain daude nor bere hautaketa prozesuan, Udalak errekurritu egin baitu funtzionario bihurtzeko prozedura mugatua bideratzeko eskubidea aitortzen duen administrazioarekiko auzi epaitegiaren epaia.

- *EEP*

Udalaren 2010erako Enplegu Eskaintzak, behin 26/2009 Legearen 23.1 artikuluan eta 4. XIean (abenduariaren 23koa, Estatuaren Aurrekontu Orokorrak 2010erako) aurreikusitako salbuespenak aintzat hartuta, gainditu egiten du Lege horretan zehaztutako langileen birjarpen tasaren % 15eko muga.

ALEGAZIOAK

Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak 2006ko martxoaren 27an emandako epaiaren (rec515/2000) eta Kanarietako Justizia Auzitegi Nagusiaren uztailaren 16ko 773/2002 epaiaren arabera, giza baliabideak hornitzeko tasak mugatu egiten ditu aurreko ekitaldian edozein arrazoirengatik hutsik geratu diren plaza sartu berrien edo sortu berrien deialdiak.¹

Plaza horiek ez ziren aintzat hartu behar giza baliabideak hornitzeko tasak zenbatzeko, epai horiek ezarritakoaren arabera, eta kontuan izanik, 2010eko Lan-eskaintza Publikoan deialdiak egiteko, bitarteko edo behin-behineko kontratuen bidez gauzatzen ziren lanpostu hutsak eta plaza horiek lan-kontratupeko langileek eta behin-behineko programaren funtzionarioek gauzatutako funtzioekin bat zetozela aitortzen zuen enplegu-plan batetik

¹ 2010erako Estatuko aurrekontu orokorreari buruzko 26/2009 Legeak hornitze tasaren baitan berariaz barne hartzen ditu EPOEren 10.1) artikuluko bitarteko funtzionarioek betetako lanpostu hutsak.

Alegazioan aipatutako epaiak 1997 eta 1999ko aurrekontu legeei dagozkie, zeinak idazkera ezberdin eta zabalagoa duten. Horietan, izan ere, ez dira hornitze tasaren mugen baitan bitarteko funtzionarioak barne hartzen, aldiz, 2010ekoan berariaz egiten den moduan.



eratorritako plaza sortu berriak hartzen direla, hau da, ez direla zerotik sortutako funtzioak, udalaren egituraren barruan jada gauzatzen zirelako.

Beraz, gure ustez, Epaitegiak kendu behar du alderdi hau.

III.1.4 KONTRATAZIOA

- *Udalaren eta erakunde autonomoen kontratugilearen profila euskarritzen duen sistema informatikoa ez du bertan jasotzen den informazioaren hedapen publikoa zein unetan hasten den modu frogagarrian egiaztatzen utziko duen gailu egokirik, SPKLren 42.3 artikulua agintzen duen moduan.*

ALEGAZIOAK

Egia da kontratatzailearen profilak ez zuela informazioaren hedapen publikoaren hasiera egiaztatzeko sistema fede-emailek, baina egia da baita ere profilaren publizitatea egunkari ofizialekin osatzen dela: EBAO, BOE, BAO, edo dagozkion jakinarazpenekin, eta, edonola ere, administrazio-kontratazioa arautzen duen publizitatearen oinarria bermatzen dute. Gainera, kontratu espedienteak Kontratugilearen Profilean argitaratzeak automatikoki Kontratazioaren Kudeaketa orrian erreseina bat sortzen du, argitalpen data zehazten duena. Beste suposamendu batzuetan (Osokoaren Kontratazio Mahaiaren osaera aldaketa) eta argitaratze data erasota uztearren, eginbidea bideratu da ondorio horietarako. Dena dela, egiaztapen horrek garrantzi handiagoa izan lezake aurreko arauketan, behin-behineko eta behin betiko esleipenak bereizten zituelako, eta argitalpena egunkari ofizial batean edo kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean egitea zehazten zuelako, “dies a quo” antzera, hamabost egun baliodunak zenbatzeko. Hortik aurrera hasten zen behin betikotzat jotzeko gehieneko epea, argitalpena hirugarrenen aurrean garrantzirik gabeko formalismo bat besterik ez bazen ere, aintzat hartuta kontratua ez zela hobetzen behin betiko esleipena egin arte.

- *Aztertu diren kontratazio espediente guztietan kontratazio mahaiaren ordezkaritza bat dago kontratazio zerbitzuan, bai administrazioko agiriak irekitzeko, bai formula bidez haztagarriak ez diren irizpideei dagokien dokumentaziorako ere; honek urratu egiten du ondoko artikuluek xedatutakoa: SPKLren 295 eta 144 artikuluek; maiatzaren 8ko 817/2008 EDren 22. artikulua, partzialki SPKL garatzen duena; eta APKLEoren 81. artikulua.*

ALEGAZIOAK

Alderdi hori Osoko Bilkuraren 2013ko apirilaren 30eko Akordio bidez zuzendu da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera; akordio horrek honakoa dio, besteak beste:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Administrazio-organo gisa momentu bakoitzean ONDARE, KONTRATAZIO ETA EROSKETEN ARDURADUN lanpostuaren titularra den pertsona izendatzea, ondoren azaltzen diren baldintzekin:

- *Bere osaera eta Getxoko Udalean izango duen mendekotasun hierarkikoa egungoa izango da (ondore horretarako erabaki litezkeen aldaketak alde batera utzita).*
- *Funtzioak eta eskumenak, dagokion Kontratazio-mahaiak alde aurretik eskuordetuta:*
 - o *“DOKUMENTAZIO OROKORRA” lehenengo gutun-azala irekitzea, zuzenketak egiteko errekerimenduak eta dokumentazio horren kalifikazioa eta kaudimena..*
 - o *“AUTOMATIKOKI EBALUATZEKOAK EZ DIREN IRIZPIDEAK” bigarren gutun-azala irekitzea eta proposamena egiten duen zerbitzuari bidaltzea, balorazioa egin dezan..*
- *Ez da beharrezkotzat jotzen kreditu-zuzkidura berririk hori martxan eta funtzionamenduan jartzeko.*

Geroago, eta Gobernu Batzordearen laguntzaile den Kontratazio-mahaiak 2013ko maiatzaren 20ko saioan hartutako erabaki bidez, adierazitako ordezkartza onartu zen.

- *Guztira 26,9 milioi euroan esleitutako 9 espedienteren pleguek prezioa balioztazeko formula aritmetikoak ezartzen dituzte eta publikoak izan arren, eskaintza merkeenak zigortzen dituzte (1, 2, 3, 4, 6, 8, 9, 10 eta 20 zk. esp.).*

ALEGAZIOAK

Adierazitako formulak Herri Administrazio guztiek aplikatu ohi zituzten adierazitako espedienteak tramitatzerako momentuan, baja ausartegiak saihesteko eta kontratua ondo egikaritzen dela bermatzeko. Hala ere, gaur egun, 738/2013 Dekretuaren bidez, Epaimahaiak adierazitako irizpidea errespetatzen duen baloraziorako formula ezarri da eta, halaber, beste formula bat erabili nahi bada, kasuz kasu Kontratazio Zerbitzuak berak egin beharko duela adierazten da, berariazko inguruabarrak kontuan hartuta eta Kontratazio-mahaiko kideek oniritzia eman aurretik.

- *Aleko prezioetan esleitutako zerbitzuak kudeatzeko kontratu batean, esleipen irizpide modura kalitate eta ingurumenaren ISO ziurtagirien jabe izatea balioztatzen da. Ziurtagiri hauek izatea, enpresaren ezaugarria den aldetik eta zuzenean kontratuaren xedeari lotzen ez zaion aldetik, kaudimen irizpidea da eta ez daiteke esleipen irizpide modura balia SPKLren 65 d) artikulua xedatutakoari jarraiki (19. espediente).*

ALEGAZIOAK

ISO ziurtagiriak jada ez dira esleipen-irizpide moduan erabiltzen Getxoko Udalean, gaiari buruz emandako iritzien berri izan eta gero, Administrazio Kontratazioaren Kontsulta Batzordeak eta Europako Justizia Auzitegiak emandakoak, bereziki.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- *Ibilgailuen araututako aparkaleku zerbitzua kudeatzeko emakida espedienteak ez du zerbitzuaren azterketa ekonomiko-administratiboa barne hartzen, kontratazio atalak espedienteari onartu aurretik txertatu beharrekoa dena, APKLEOren 183. artikulua agintzen duen moduan (19. espedientea).*

ALEGAZIOAK

Dokumentazioan azterketa ekonomiko-administratiborik jasotzen ez den arren, Baldintza Teknikoen Agirian erabilerarako araudia eta bere definiziorako beharrezkoak diren berezitasun teknikoak jasotzen dira. Halaber, eta lizitatzaleei exijitutako dokumentazioaren artean, adierazitako alderdiak daude, azterketa ekonomikoa barne.

- *Guztira 10,2 milioi euroan esleitutako 6 espedientetan (1, 4, 11, 13, 15 eta 17) behin-betiko esleipena dagozkion aldizkarietan argitara ematea falta da (SPKLren 138.2 art.).*

ALEGAZIOAK

Hutsegite bategatik, adierazitako esleipenak argitaratu ez ziren arren, gaur egun ondore horretarako araudian zehazten diren legezko betebeharrak betetzen dira.

- *Bizkaiko Zubi inguruko paisaia berreskuratzeko lanak, 1,7 milioi euroan esleitutakoak, BFAren Kultura Sailak alde aurretik baimenik eman gabe gauzatu dira; baimena behin obrak jaso ondoren ematen da.*

ALEGAZIOAK

Obrek Foru Aldundiaren oniritzia izan zuten, Aldundiaren baimen-agiri formala beranduago iritsi zen arren. Bestalde, nabarmentzekoa da espedientearen tramitazioari esker Tokiko Inbertsioetarako Estatuko Funtsaren (FEIL) laguntzak lortu zirela; hori ez zatekeen gertatutako obren hasiera atzeratu izan balitz.

- *Bi espedientetan (7 eta 21) prezioen berrikusketa atzerapenez onartu da eta horietako espediente batean, 998.029 euroan esleitutakoa, kontratua egikaritzeko epea gainditu da epe luzapena onartu gabe.*

ALEGAZIOAK

Prezioen berrikuspenak, behin onartuta, aplikagarriak diren aldietan aitortzen dira, eta hala badagokie, zenbateko eguneratuen aldeak ordaintzen dira eguneratu ezin izan diren fakturretan.



- *Udal eraikinak barrutik garbitzeko espedientea 4,6 milioi euroan esleitu zen 4 urtetarako; bertan, behin-betiko bermea ez da esleipen zenbatekoaren gainean kalkulatu (SPKLren 83. artikulua), urteko baten gainean baizik.*

ALEGAZIOAK

Akatsa “kontratuaren prezioa” kontzeptuaren okerreko kontsiderazioan datza; hau da, urte anitzeko kontratuak zirenean lizitatu beharreko prezioa.

Egia da lege-testu ezberdinek prezioaren kontzeptua definitzen zutenean, kontratuak egiazko prezio bat izan behar zutela esatera mugatzen zirela, eta prezio hark egokia izan behar zuela kontratua behar bezala betetzeko, merkatuaren prezio orokorrari erantzunez, etab. Hau da, legeak ez zioela espresuki kontratuaren prezioa kalkulatzeko urteroko guztiak batu behar zirenik. Aintzat hartuta lizitatuzaileak bere proposamenean eskaini behar zuen prezioa urtebetekoa zela —gero esleipenaren zenbatekoa bihurtzen zen—, ideia hori bermera, sailkapenera, etab. igortzen zen. Bestalde, askotan egiten zen akats hura, Auzitegiko txostenek erakusten duten bezala.

Udalak jada zuzendu du akatsa, eta gaur egun, behin betiko finantzak esleipenen guztizko zenbateko osoaren gainean kalkulatu dira.

- *Hiri garbiketa eta HOS jasotzeko espedientea urtebetez luzatzea, 2011n 10,8 milioi euroren zenbatekoa egin duena, TGBk onartu zuen Osokoak beharrezkoak diren, izan ere, alkateari eman zitzaion eskuordea esleipen erabakiak hartzeko soilik zen.*

ALEGAZIOAK

2002ko abenduaren 27an, Getxoko Udaleko Osoko Bilkuran kaleak garbitzeko eta Hiri-hondakin Solidoak biltzeko kontratua esleitzea erabaki zen; gainera, "Alkatetza-Lehendakartzari honako akordioa egikaritzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko ahalmena ematea" erabaki zen, inolako mugarik ezarri gabe. Honakoa ere erabaki zen: "Kontratuak 8 urteko iraupena izango du eta urtebeteko bi luzapen eduki ahal izango ditu, berariazko akordio bidez erabakiko direnak".

Beraz, balizko luzapenak erabakitzeko eskumena Alkatetza-Lehendakartzari eman zitzaion eta hori baimendu zen Osoko Bilkuraren aipatutako akordioa betez. Hori Kontratazio eta Erosketen Arloko Arduradunak egindako txostenean jasotzen da; txosten horren arabera onartu zuen luzapena Gobernu Batzordeak.

Gainera, nolana ere, Osoko Bilkuraren nahia luzapen hori onartzea izan balitz, jakinarazi eta alkatetzari emandako ahalmenak bere gain har zitzakeen, baina ez zen horrelakorik gertatu.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- *Galerías Punta Begoña hotela eraiki eta ustiatzeko kontratua alde bien adostasunez suntsitu zenean, esleipendunak kontratua gauzatzeari uko egin izanak Udalarari eragiten dion ondorio ekonomikoaren kalkulua Udalaren idazkariak egin du. Gure iritzira, Artekartzak adierazi bezala, komenigarria zatekeen profesional aditu batek ondorio ekonomikoa balio-neurtzea eta hartara, esleipendunak ordaindutako kopuruaren arrazoizkotasunaz ondoriorik atera ahal izatea, 1,2 milioi euro eragindako kalte eta galera kontzeptuan.*

ALEGAZIOAK

Batetik, aipatu behar da Auzitegiak erreferentzia egiten dion kontu-hartzaile nagusiaren 2012ko otsailaren 23ko fiskalizazio-txostenak dioela “frogatuta dagoela hitzartutako balioak Udalak auzi baten aurrean lor dezakeen maila-baliorik baxuena gainditzen duela”. Gainera, Kontu-hartzailetza ez dago akordioaren aurka; egintza hori bere betekizunengatik behartuta egoteagatik egin beharko luke, baldin eta kalkulu ekonomikoan arrazoirik ez zegoela balioetsi izan balu.

Bestalde, barneko (Idazkaritza Nagusia, Kontratazio eta Erosketa Arloko AOT) nahiz kanpoko (Garrigues kabinete juridikoak igorritako txostenak eta KPMG Abogados, SL enpresak igorritako balorazio ekonomikoko txostena) profesional adituek baloratu dute eragin ekonomikoa. Hain zuzen ere, espedientean txosten hauek jasota datoz, aspektu horri dagokionez:

- . 2011ko azaroak 9; Garrigues kabinete juridikoaren kanpo txosten juridikoak kontratua eta haren ondorioz eman daitezkeen aukerak aztertzen ditu, Udalerako, esleipendunak kontratua betetzen ez badu.
- . Profesional adituak 2011ko abenduan igorritako txostena (KPMG Abogados, SL enpresak sinatua), 504.568 euroko kalte-ordaina kuantifikatuz.
- . Udaleko Idazkari Nagusiak 2011ko abenduaren 30ean igorritako txostena; bertan, Udalaren uneko egoera aztertzen zen, kontratuaren ez-egikaritze baten aurrean, eta, aldi berean, kontratuari adostasunez amaiera emateko zenbatekoa baloratzen zen, Idazkaritza Orokorraren iritziz 967.261 eurokoa zena, prozesu-kostuak kendu gabe, auzitegiek Udalaren xedeak balioesten ez bazituzten.

Txosten horrek mota horretako salerosketa bati aplikatu dakizkiokeen parametro ekonomikoak biltzen ditu, eta Udaleko Kontu-hartzailetzak ez du desadostasunik erakutsi.

Aipatu behar da eman daitekeen kalte-ordainaren kalkulua kontratuan jasotako kanonaren egungo balio garbian oinarritzen dela, parametro gisa % 2 KPI eta % 6 deskontu-tasa hartuta. Parametro biak justifikatuta daude txostenean, kanpo-erakunde objektiboek dagokienez, eta baita epaiketa-kasuan egon daitezkeen emaitza ezberdinen probabilitateen balioespenean ere.

- . Idazkaritzaren txostenean egindako balorazioa, txostenean jasotakoaren arabera, arrazoituta dago, lehen adierazitako eta espedientean jasotako 2011ko azaroaren 9ko kanpo txosten juridikoan jasotako irizpidearekin adostasunean.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

. Udaleko Idazkaritza Orokorrak 2012ko otsailaren 10ean igorritako txostena, iraungitze-proposamen zehatza aztertuz, esleipendunarekin egindako negoziaketaren ondorioz, adieraziz Udalak jasotako kalte-ordainen zenbatekoa (eskudirutan, parte bat, gehi higiezina birgaitzeko interesezko dokumentazioaren ekarpena) egokia dela, 2011ko abenduaren 30eko Idazkaritzaren txostenean jasotako irizpideen arabera

. Kontratazio Sailari atxikitako Administrazio Nagusiko teknikariak 2012ko otsailaren 15ean igorritako txosten juridikoa, proposamena babestuz

Kontratazio Sailari atxikitako Administrazio Orokorreko teknikariak 2012ko otsailaren 22an igorritako txostena, espedientean jasotako txostenek egindako proposamena babesteko eta oinarritzeko zehaztapen ekonomiko nahikoak dituztela ondorioztatuz.

Bestalde, txostenean jasota geratu beharko litzateke 1,2 milioi euroko kalte-ordainarekin batera, esleipendunak Udalari txosten teknikoak emateko konpromisoa hartu zuela bere gain, proiektu-azterketan egindako higiezinaren egoerari buruz.

Gainera, Udalbatzak kontratu-espedientearen arauzko izapideei hasiera emateko akordioa onartu zuenez, alkateak gaia mahaigaineratu zuen udal-taldean 2012ko otsailaren 8ko Bozerailearen Batzarrean, eta alderdi haiek akordioaren aldeko jarrera erakutsi zuten, honekin batera doan Bozerailearen Batzarreko aktan jasotakoari jarraiki.

- *Erosketa txikien analisia*

Erosketa txiki modura izapidetutako erosketak aztertu ditugu eta ikusi dugu 1,5 milioi euroren erosketak egin direla publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeenak, bai kopuruagatik, bai data beretan eta hornitzaile berarekin hornigai berdinak edo antzekoak erosi zirelako.

ALEGAZIOAK

Gastuan eraginkortasun- eta zorrotasun-irizpideak aplikatuz, zenbait gastu kontratu-espedienteetara bideratzen ari dira, lehia handiagoa sustatzen duten prozedurei jarraituz. Kontratu txikiei dagokienez, kontratazio-ildo hauek ezarri dira 738/2013 Dekretuaren bidez:

- Sailaren edo Unitatearen eskaera, kontratazioarekin batera, gutxienez, hiru aurrekontu ere aurkeztuko direla eskatzen duena, obren kasuan, eta, bi, gainerako kontratuetarako.
- Esleitzeko aukeratutako aurrekontua ez bada ekonomikoena, horrekin batera, dagokion teknikariak sinatutako txostena aurkeztuko da, aukera hori justifikatzen duena.
- Ezin izango da hasi inoiz kontratu txikirik, Alkatetza Dekretu bidez esleitu ez bada, bestela jarduerak baliogabetzat hartuko dira.

Kontratu txikiaren bidez bideratutako espediente kopuruari dagokionez, jaitziera nabarmena aurkitu dugu.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.1.5 DIRU-LAGUNTZAK

- *Udalak ez du diru-laguntzen plan estrategikorik egin 2011ko ekitaldirako, eskuratu asmo diren helburu eta ondorioak, lortzeko behar hainbateko epea, aurreikusgarri diren kostuak eta finantzaketa iturriak zehaztuko dituen; horrek Diru-laguntzen Lege Orokorrak 8. artikuluan ezarritakoa urratzen du.*

ALEGAZIOAK

Udala, gaur egun, diru-laguntzen estrategia plana prestatzen ari da, eta, beraz, laster beteko du Auzitegiaren gomendioa.

- *TGBk Getxo Empresarial y Comercial (GEYC) enpresari 105.000 euroren diru-laguntza zuzena ematea onartu zuen, 2011ko urtean merkataritza dinamizatzeko jarduerak garatzeko aparteko laguntzak emango zituena. Errepikapena dela eta, edo hartzaileen izaera dela eta, egokiagoa dirudi laguntza horiek Udalbatzak onartutako diru-laguntza nominatibo gisa tratatzea.*

ALEGAZIOAK

Auzitegiaren irizpidearekin bat gatoz, eta, arrazoi horrengatik, diru-laguntza hori izendun gisa jasota geratu da 2013 eta 2013ko ekitaldietako aurrekontu-proiektuetan.

- *Udalak zuzenean 2 diru-laguntza eman ditu, 93.198 eurorenak; ordea, diruz lagundutako objektua bat dator SPKLn araututako zerbitzu emateko kontratuarekin eta honenbestez, lehia printzipioa urratu da.*

ALEGAZIOAK

Getxo Enpresa erakundeari Gabonetako apainduetarako emandako 55.000 euroko diru-laguntza, aipatutako elkarteak jarduera orokorreko programa bat aurkeztu duenean egin da, udalaz gaineko erakundeen eskutik Udalei eta Merkatarien Elkarteei urte osorako eskatzen ari zaien lankidetzaren publiko-pribatuaren esparruan. Esparru horretan, bi alderdien arteko akordioari esker, sektoreak interesgarritzat jotzen dituen eta emandako diru-laguntzaren zatiak diren zenbait jarduera adostu dituzte. Gero, Elkarte horrek antolatzen ditu, inolako udal-antolaketarik gabe. Testuinguru horretan, Gabonetako argiak antolatzen dira, urtero kopuru jakina jasotzen duena. Getxo Enpresa elkarteak da horren antolaketaz arduratzen dena.

Gauza bera gertatzen da Bizarra Lepoan elkarteari emandako diru-laguntzarekin, GEHI programaren jarraipena eta dinamizazioa egiteko. Horren helburua ahalik eta elkarte eta erakunde gehien biltzea da, euskara sustatzeko programa batean parte har dezaten. Gizarte-esparru guztietan euskararen erabilera handitzea da helburua.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- *Guztira 501.000 euroren laguntzak eman dituzten 2 diru-laguntza lerrotan Udalak ez du BAOn emandako diru-laguntzen emakida-ebazpenaren laburpenik argitara ematen, kopuruak banaka hartuta 3.000 euroren zenbatekoa gainditzen dutenean, edukia osorik zein tokitan dagoen eskuragarri adieraziaz, DLOren 18.2 artikulua agintzen duenari jarraiki.*

ALEGAZIOAK

2012aren aurreko erabazpenak ez ziren aldizkarian argitaratzen Udalaren Zerbitzu Juridikoen jarraibideak betez, haiek argitaratzea ez zela beharrezkoa jotzen baitzen; 2013tik aurrera, ordea, erabakiak argitaratu dira.

- *105.000 euroren zenbatekoan emandako diru-laguntza batean ez da egiaztatu hiru eskaintza eskatzeko obligazioa diruz lagungarri den gastua zerbitzu edo hornigaietan 18.000 euroz gaintikoa bada, DLOren 31.3 artikulua agintzen duen modura.*

ALEGAZIOAK

Diru-laguntzen emakida arautzen duen Udal Araudiaren lehenengo xedapen osagarriak dio Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta garapeneko edo sektoreko gainontzeko araudia aplikaziozkoak izango direla Udal Araudian aurreikusten ez denerako; beraz, Udalak emandako diru-laguntzen onuradunek Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.3 artikulua bete beharko dute.

2013ko ekitaldian, Getxo Enpresa eta Merkataritzari, ezohiko jardueretarako 105 milioi euroko diru-laguntzen onuradunari, 3 eskaintzen eskaera egiaztatzeko eskatu diote; haiek bidaltzeko zain gaude. Honekin batera doa bidalitako gutunen kopia.

- *Gizarte zerbitzuen esparruan diharduten erakunde, elkarte eta antolamenduei emandako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri-arauek haztatu gabeko irizpideak barne hartzen dituzte eta ez dute diruz laguntzeko gehiengo zenbatekoa mugatzen; diru-laguntza horiek 90.000 eurorenak izan dira. Udalak barne funtzionamenduan argitaratu ez diren haztatutako irizpideak eta gehiengo kopuruak baliatzen ditu.*

ALEGAZIOAK

2012ko deialdian oinarri arautzaileen berrikusketa sakona egin da, eta, egoera zuzentzeaz gainera, emakida-prozesu osoa hobetu da, kudeaketan eraginkortasunik handiena lortzeko, eta diruz lagundutako proiektuek ahalik eta eraginik handiena izateko Getxon.

2013ko deialdian, doitze berriak egin dira, eta dinamika bat ezarri da; horren bidez, aurreko deialdian antzemandako aspektuak hobetuko dira.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hala, Epaitegiak antzemandako aspektuak zuzendu dituzte oinarri arautzaile berrietan.

- *Ekintza humanitarioko proiektuei (374.000 euroren laguntzak) eta kultura elkarteei (103.700 eurorenak) diru-laguntzak emateko oinarri arauak objektiboak ez diren irizpideak barne hartzen dituzte, hala nola, erakundeak herrian duen tradizioa. Irizpide hauek, baina, ez dira erabakigarriak izan emakida egiteko. Honezaz gain, 103.700 euroren diru-laguntza batean, oinarri-arauak ez dute diru-laguntzaren kopuru gehiengoa zehazten eta emandako diru-laguntza ez da eskuratutako puntuen baitakoa.*

ALEGAZIOAK

Proiektu humanitarioentzako diru-laguntzak arautzeko oinarriak

“Getxoko Udalak finantzaturako jarduerari jarraipena ematea” irizpideari dagokionez, 2 punturaino baloratzen da, eta haren helburua da alde aurretik egindako esku-hartzei jarraipena ematea eta haietan sakontzea. Irizpidea objektiboa eta automatikoa da; izan ere, jarraipena eman zaio edo ez.

- 7.1. Getxoko bizilagunak proiektuan inplikatzeari (1 punturaino).
- 7.2. Getxon aurrera eramandako sentsibilizazio-jarduerengatik (4 punturaino).
- 7.3. Erakundearen egoitza Getxoko udalerrian (8 punturaino).

7.1. Irizpide horretan, bizilagunen inplikazioa GGKE guztietarako baloratzen da, Getxon egoitza badute edo ez badute ere, eta proiektuari zuzenean lotutako boluntarioak edo profesionalak badituzte, betiere. Hortaz, irizpide objektiboa da; izan ere, betetzen da edo ez, ez du interpretaziorako biderik.

7.2. Sentsibilizazio-jarduerak GGKEren “itzultzea” eta “presentzia” egiaztatzeko puntuatzen dira, Getxon, udalerrian gizarte-eraldaketarako gaitasunik dagoen baloratzeko. Kasu horretan, puntuazioa GGKEk Getxon aurrera eramane dituen sentsibilizazio-jardueren arabera xehatzen da, eta, beraz, irizpide automatikoa eta objektiboa da:

- GKEak 3 sentsibilizazio-jarduera baino gehiago burutu baditu Getxon.....4
- GKEak 3 sentsibilizazio-jarduera burutu baditu udalerrian.....3
- GKEak 2 sentsibilizazio-jarduera burutu baditu udalerrian.....2
- GKEak sentsibilizazio-jarduera 1 burutu badu udalerrian.....1



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

7.3. Erakundearen egoitza Getxoko udalerrian (8 punturaino). Lankidetzaren munduan Getxoko gizartearen parte-hartze handiagoa sustatzeko modua bilatzen duen irizpide objektiboa da (egoitza/ordezkaritza badu edo ez badu ere). 8 puntu horietatik 7 ematen dira egoitza/ordezkaritza bat izanez gero, eta falta den puntua ematen da Getxon egoitza/ordezkaritza duen edo ez duen GGKEk gutxienez Getxoko 25 bazkide baditu erakundearen. Hortaz, automatikoki zenbatzen diren irizpide objektiboak dira.

Kultura-elkarteetarako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak

2012. urtetik, diru-laguntzak horiek emateko deialdi bakoitzean onartzen diren oinarri berezietan, diru-laguntzaren zenbatekoari buruzko atalean, irizpide hauek ezartzen dira:

Orain deitutako diru-laguntzak beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuek emandakoekin bateragarriak izango dira, xede berdinerako badira. Hala ere, norgehiagokan bere erakunde batzuek emandako diru-laguntza ezin daiteke izan jardueraren kostu osoa baino handiagoa.

Emango den diru-laguntzaren zenbatekoari dagokionez, eskatutako zenbatekoa hartuko da oinarritzat, eta zenbateko horri, lortutako puntuengatik dagokion ehunekoa aplikatuko zaio.

Eskaerek diru-laguntzarako dagoen gehieneko kreditua gainditzen badute, honela erregularizatuko da:

Dagoen zenbateko osoa eskatutako diru-laguntza guztien behin-behineko esleipenarekin zatituko da, eta, emaitza, behin-behineko esleipenean aplikatuko den koefiziente zuzentzailea izango da.

Kostu osoa baino handiagoa bada, onuradunak Kultur Etxeak emandako zenbatekoa itzuli beharko du, finantzatutako kopuru osoarekiko proportzioan.

Horrenbestez, ulertzen dugu argi eta garbi ezarrita geratzen dela diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa, baita emandako zenbatekoa lortutako puntuen arabera dela ere.

III.1.6 BERANKORTASUNA

- *Aurreikusitako ordainketak gauzatu izanari buruzko hiruhileko txostenak mamitu ditu udal artekaritzak 2011ko ekitaldian, Udalbatzari igortzen zaizkionak; halaxe agintzen dute merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako borrokan neurriak ezartzen dituen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4.3 eta 5.4 artikuluek, abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duena. 2011ko ekitaldian zehar, aipatutako Legeak ezarritako epea gainditu da 7,1 milioi euroren zenbatekoan, ordainketen % 11 egiten dutenak.*

ALEGAZIOAK

Atal horri dagokionez, xehetasun hauek aipatu behar dira:

. Ordainketak egiteko epea, 15/2010 Legearen 3.1 artikulua jasotako betez, fakturaren ordainagiria jasotzen denean sartuko da indarrean [...], data hori salgaiak jaso edo zerbitzuak eman aurrekoa ez bada, betiere. Udaleko Diruzaintzak egindako txostenetan jasota datoz epe hori gainditu duten fakturak, udal-erregistroan sartu direnetik;



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

atzerapenen % 60a dagokion fakturaren onarpen-faltagatik izan ohi da, hau da, salgaiaren harrera edo zerbitzuaren prestazioa ez egiaztatzeagatik.

Bestalde, aipatu behar da atzerapen oso txikia eman dela, eta ordainketak hurrengo hilabetean egin direla, kasuen % 2an izan ezik, atzerapenak udal-administrazioari ez dagozkion kausengatik ematen direlako, hala nola akatsak fakturan bertan edo ordainketarako banku-kontuan.

III.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK

III.2.1 LANGILERIA

- *Langileak kontratatzea*

Kultur Etxeak Gabonetako "Getxolandia 2011-2012" haur programarako animatzaile, arduradun eta begirale postuak betetzeko kontratazioa, 26.663 euroren gastua izan duena, deialdi publiko bidez egin da eta betekizumen artean, besteak beste, Getxon bizi izatea ezartzen du. Baldintza honek mugatu egiten du funtzio publikorako sarbidea, EFPLren 25.1 artikulua urratuz.

ALEGAZIOAK

Baldintza horren helburua zen udalerriko gazteen artean enplegua sustatzea, kontuan izanik gainera oso iraupen laburreko kontratuak direla.

Gaur egun, eta 2012. urtetik, Kultur Etxeak ez du langilerik kontratatu zeregin horietarako. Mota horretako gertaeretan espezializatutako enpresek ematen dute zerbitzu hori. Horregatik, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartutako Sektore Publikoko Legearen Testu Bateginak ezarritako arauak betetzen dira.

Bestetik, Kultur Etxeak lanpostu hutsa bete bitartean 7 langileren kontratazioan 2004ko ekitalditik 2010era bitartean eta aldi baterako 6ren kontratazioan 2011ko ekitaldian, 1994 eta 1997ko lan poltsak baliatu ditu; berebat, Udal Egoitzak 2004ko ekitalditik 2011ra bitartean 17 langileren hautaketan 2002 baino lehenagoko lan poltsak baliatu ditu.

Lan poltsak berritu behar lirateke, enplegu publikorako sarbidea arautzen duten printzipioak betetzeko.

Musika Eskolan lan poltsa bidez aldi baterako langileria kontratatzeke ezarritako prozedurak ez du horren erabilera egiaztatzen uzten, ez baitago gauzatutako ekintzen behar hainbateko euskarri edo ebidentziarik.

ALEGAZIOAK

Musika Eskola lanean ari da burtsen kudeaketa-prozedurak hobetzeko, eta aurreikusita dago irakasleen lan- burtsa 2013an amaituko dela, eta baita lan-burtsaren kudeaketa-araudia ere, haren aplikazioa egiaztatzea ahalbidetuko duen sistematizazioa jasota utziz.



- Ordainketak

TEAek ez dizkiote Foru Ogasunari aitortzen gizarte zerbitzu kontzeptuko diruzko ordainsariak, nahiz salbuetsita dauden. Indarreko arautegia betetzeko, Erakunde Autonomoek langileen ordainsari guztien berri eman behar diote Foru Ogasunari.

ALEGAZIOAK

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi zuen azaroaren 20ko 207/2007 FORU DEKRETUAREN 127.2 d) artikulua, besteak beste, zera ezartzen du: aurre-aurreko urtean egindako atxikipen eta konturako sarreraren urteko laburpena aurkeztu behar duela eta laburpen horretan kargapetik salbuetsitako dietak eta salbuetsitako errentak jaso beharko dira, besteak beste.

Gizarte laguntzak kargapetik salbuetsitako errentatzat edo PFEZn kargapekoak ez diren errentatzat jotzen ziren, laguntzen helburua osasunaren tratamendua edo osasuna berreskuratzea zelako, ulertzen baita ez direla aberastasun iturri, haien helburua aipatutako tratamendua edo osasuna berreskuratzea baita.

Gainera, badago langileei ordaindutako gizarte laguntzei buruzko 2008ko uztailaren 1eko Bizkaiko Foru Ogasunaren kontsulta bat, osasun zerbitzu publikoak edo dagokion mutua estaltzen ez dituen gaixotasunekin lotutako zerbitzuen gastuengatik emandako laguntza ekonomikoak ez direla Zergari atxikita errentatzat joko dioena, beti ere, osasun tratamendua edo osasuna berreskuratzea bideratzen badira, onuradunaren osasuna berreskuratzeko dagokion osasun laguntzarako formulen erabilera gisa ulertuta.”

Beraz, ogasunak ez dituen espresuki salbuetsitako errentatzat kalifikatzen, ez genuen ulertzen laguntza horien zenbatekoak sartzea derrigorrezkoa zenik; hala ere, kontuan hartzen dugu gomendioa 2013an.

-Bestelakoak

2008ko azaroaren 7an, Musika Eskolako Zuzendaritza Kontseiluak 2008-2010eko Udalhitzera atxikitzea erabaki zuen; ebazpen horri publikotasuna eman behar ziokeen aldizkari ofizialetan (EFPLren 102.3 artikulua).

ALEGAZIOAK

Akatsa antzeman eta gero, atxikipena argitaratu da 2013ko uztailaren 30eko BAOn, 145. zenbakian.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.2.2 KONTRATAZIOA (IKUS A.16)

-Guztira 212.431 euroren zenbatekoan esleitutako espediente batean aurkeztutako eskaintzak balioztatzen dituen txosten teknikoak pleguan irizpide bakoitzari emandako puntuazioak zehazten ditu, baina ez ditu emandako puntuazio horiek justifikatzen.

ALEGAZIOAK

Gaur egun, Kultur Etxeko teknikariek zeinahi kontratazio-espeditetan egindako txosten teknikoak behar bezala justifikatzen ditu lizitatzailerako bakoitzari esleitutako puntuazioak.

- 2011ko ekitaldian zehar, auzoko festa eta inauterietarako hainbat zerbitzu kontratatu dira 2 hirugarrenekin guztira 130.608 euroan, 27 fakturari dagozkionak, eta horientzat Kultur Etxeak kontratu txikiaren prozedura baliatuta erostea aztertu behar lukeela uste dugu.

ALEGAZIOAK

Kultur Etxeak prozedurak berrikusi ditu 2012an, eta, une horretatik aurrera ez dira zerbitzu horiek kontratatu kontratu txikiko prozedura bidez.

- Kultur Etxeak dagokion espedientearen hasiera eta esleipena atzeratu denean zuzenean kontratatu ditu zerbitzuak, 49.031 euroren zenbatekoan.

Getxo Kirolak

- Fitness-muskulazio aretoetako zerbitzuak ustiatzeko kontratazio espedientea 2005eko maiatzaren 13an esleitu zen eta 2011ko ekitaldian 310.562 euroren gastua izan du; hona hemen espediente horretan azaleratu diren akatsak:

- . Kontratazio mahaiaren osaera ez da zuzena, izan ere ez dira bertan izan ez idazkaria, ez artekaria eta mahaiak ez du esleipen proposamenik egin. Esleipena zuzenean lehendakariak ebazten du, txosten teknikoa jaso ondoren; ordea, horretarako eskumena duen atala Zuzendaritza Kontseilua da.

Gerora, 2007ko irailaren 19an, Zuzendaritza Kontseiluak lehendakariaren proposamena onartu zuen.

- . Atal eskumendunak gastua egiteko eta baliatzeko baimena eman duenik ez da egiaztatu eta lehendakariak egiten du Zuzendaritza Kontseiluak beharrean; gainera, ez dago krediturik badelako ziurtagiririk, ezta pleguen berri emango duen txosten juridikorik ere.
- . Ez da azterketa ekonomikorik egin denik egiaztatu eta Ordenantza Fiskalean ere ez dira horri dagozkion prezioak onartu.



ALEGAZIOAK

Fit &Gym

Getxo Kirolak-en Zuzendaritza Batzordeak 2007ko irailaren 19an egindako batzarrean, 2.3 zenbakidun erabakiaren bitartez, gasturako baimen eta xedapen faltarekin lotutako zuzenketa egiteko proposamena onartu zen, akats hori zuzenduta geratu zelarik.

Espediente horren arazoaren ondorioz, kontratuaren agirietan lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren kopuru zehatza kuantifikatu ez zenez, kontratazio-prozeduraren berezko tramite asko ezin dira zehaztu, hala nola, gastua onartzeko eskumena daukan organoa zein den jakitea (nahiz eta, Toki-araubidearen Oinarriei buruzko Legearen 21.1 ñ) eta 22.2 n) artikuluek dioten bezala, badauden iraupena bezalako beste irizpide batzuk), kredituaren atxikipena...

Azaroa da espediente honekin zer egin beharko litzatekeen erabakitzea. Erabat deuseztat joko balitz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 102. artikuluan azaltzen den ofiziozko berrikuspenerako prozedura abiarazi beharko litzateke, horren leharrean guztiarekin. Gainera, Getxo Kirolak-i zein fitness-muskulazio zerbitzuaren enpresa esleipendunari kalteak sortu lizkioke horrek, are enpresak ez daukanean inolako erantzukizunik kontratuko akatsei dagokienez.

Kontratua 2014ko abenduaren 31n amaitzen da eta urte naturaleko luzapenak izan ditzake gehienez bost urtera arte; beraz, Getxo Kirolak-ek zerbitzua esleitzeko kontratazio-espediente berria abiaraziko du, luzapenen aukerara jo gabe.

- *Gune berdeak eta lorategiak zaintzeko espedienteak, 261.612 euroan esleitu zena, esleipen irizpide modura hobekuntzak egitea besarkatzen du, zein elementuren gainean eta zein baldintzatan zehaztu gabe (SPKLren 131. artikulua).*

ALEGAZIOAK

Esleipenerako irizpide gisa jaso ziren hobekuntzak, %15arekin, eta agiri teknikoak ondorengo jasotzen zuen hobekuntzen xehetasun gisa: "Zerbitzuan egingo liratekeen hobekuntzen zehatutako proposamena, emaitzen kalitateari zein GETXO KIROLAKentzako aurrezpen ekonomikoari dagokionez suposatuko luketeenaren balorazio objektiboarekin".

Ez zen zehaztu zein elementuren gaineko hobekuntzak aurkez zitezkeen, uste izan zelako kontratatu beharreko zerbitzuaren edozein elementuren gaineko hobekuntzak aurkez zitezkeela. Hala ere, onartuak izateko baldintzak zehaztu zirela uste da, beharrezkoa baitzen eskainitako hobekuntzek emaitzen kalitatearengan eta aurrezpen ekonomikoari dagokionez (errentagarritasuna) ekarriko lituzketen onurei buruzko balorazio objektibo bat aurkeztea.

Hala ere, Getxo Kirolak-ek zein elementuren gaineko hobekuntzak onartzen dituen zehatzen du eta onartzeko baldintzak ezartzen ditu.



- *Sorospen, igerileku eta udako abentura plana espedientean, 503.798 euroan esleitutakoa, ez da behin-betiko esleipena dagokion aldizkari ofizialean argitaratu (SPKLren 138.2 artikulua).*

ALEGAZIOAK

Espedientea kontsultatu da eta kontratatzailearen profilean behin-behineko esleipena zein behin betikoa argitaratu zirela egiaztatu da, baina ez zela Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu; hori forma-akats bat da.

- *Kontratu txiki modura izapidetu diren erosketak berrikusterakoan ikusi da segurtasun eta zaintza kontratua, 2011ko abuztuaren 9an amaitzen zena, 2011n egikaritzen jarraitu dela, 99.518 euroren zenbatekoan.*

ALEGAZIOAK

2011n esleitutako prozedura irekiaren helburua zen “Getxo Kirolak-en instalazioetan segurtasun zerbitzua eskaintzea, armarik gabe”

Getxo Kirolak-en instalazioetako armarik gabeko segurtasunerako kontratua 6 hilabeterako esleitu zen, 6 hilabeteko luzapenarekin, administrazio-baldintzen agiriaren laugarren klausulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2011ko urtarrilaren 12ko alean argitaratutako lizitazio-iragarkian jasotzen zen bezala.

Erantsitako kontratuan jasotzen denaren arabera, esleipenaren zenbatekoa (BEZ barne) 119.421,9 eurokoa izan zen; horrela, zenbatekoa hileroko ordaintzea aurreikusitaz gero, hileroko zenbatekoa 19.903,65 eurokoa izan zen.

Getxo Kirolak-en instalazioetako armarik gabeko segurtasunerako kontratuaren luzapenaldian, bost hileroko ordainketa egin ziren 2011n, hau da, 99.518 euro, guztira.

Egiaz, luzapena isilean eta ahoz egin zen. Luzapena ez balitz espresuki agiritan aurreikusita egon, ezingo zatekeen kontratua luzatzeko erabakirik hartu. Beraz, luzapena aurreikusten duen klausularen helburua da gaitzen duen klausula gisa eratzeko. Nolanahi ere, akats formal bat da, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren beste txosten batzuetan ez da legea bete ez denik kontsideratu (hor dago, esaterako, Iruni -2010- dagokion txostena).

Zerbitzua eskaintzeko beharrean oinarritutako interes publikoko arrazoiengatik, kontratuarekin jarraitu zen; izan ere, zerbitzuen kontratu hori funtsezkoa da Getxo Kirolak-en funtzionamendurako.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.2.3 DIRU-LAGUNTZAK

-Kultur Etxeak ez du diru-laguntzen plan estrategikorik egin 2011ko ekitaldirako, eskuratu asmo diren helburu eta ondorioak, lortzeko behar hainbateko epea, aurreikusgarri diren kostuak eta finantzaketa iturriak zehaztuko dituen; horrek Diru-laguntzen Lege Orokorrak 8. artikuluan ezarritakoa urratzen du.

ALEGAZIOAK

Kultur Etxeari dagokionez, Estrategia Plana prestatzen ari dira, Kulturaren Estrategia Plana definitzeko prozesuaren barruan.

- *Kultur Etxea Erakundeak lehendakariaren Ebazpen bitartez unean uneko izaeradun aparteko 20 diru-laguntza zuzenean eman dizkie 15 kultur erakunderi, guztira 74.620 euroren zenbatekoan; ez dira, baina, espedientean behar hainbat justifikatu deialdi publikoa egitea eragozten duten arrazoiak.*

ALEGAZIOAK

Gaur egun, diru-laguntza horiek lehia-bidez ematen dira, oinarri arautzaileetan jasotakoa betez.

- *Getxo Kirolak elkarteak aparteko diru-laguntzak eman dizkie 49 erakunde onuraduni kirol jarduerak antolatzeko, guztira 186.040 euroren zenbatekoan: espedientean ez dira, ordea, deialdi publikoa egitea eragotzi duten interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak, edo behar bezala justifikatutako beste batzuk, behar hainbat egiaztatu eta horrek DLOren 22. artikulua urratzen du.*

ALEGAZIOAK

2011n eman ziren aparteko diru-laguntza guztien kasuan, gizarte intereseko arrazoiak edo beste batzuk egiaztatu ziren; arrazoi horiengatik, zaila zen deialdi publikoa egitea, arrazoi horiek ez ziren arren behar bezala egiaztatuta geratu. 2011n eman ziren aparteko diru-laguntzetatik asko, kirol ekitaldi ezberdinak antolatzeko eman ziren; ekitaldi horiek kirol elkarteek eurek proposatu zituzten, beraz, behin ekitaldiaren interesaren komenientzia baloratu ondoren, deialdi publikoa egiteak garaiz eta behar bezala ezin antolatu ahal izatea suposatzen zuen hainbat kasutan.

III.2.4 BERANKORTASUNA ETA BESTELAKO ALDERDIAK

- *Berebat, ez dira merkataritzako eragiketen ordainketarako aurreikusitako epeak betetzeari dagokionez hiruhileko txostenak mamitu eta horrek 3/2004 Legea aldarazten duen 15/2010 Legearen 4.3 artikulua urratzen du.*



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOAK

2013an, kontrola aurrera eramatea ahalbidetzen duen aplikazio informatikoaren modulua ezarri da erakunde autonomo guztietan. Getxo Kirolak-ek 2013ko ekitaldian egin ditu txostenak, eta gainontzeko erakunde autonomoei dagokienez, txostenak 2013ko hirugarren hiruhilekotik aurrera prestatzea espero da.

- *Getxo Kirolak eta Udal Egoitzak ez dute 2011ko ekitaldian Foru Ogasunaren aurrean hirugarrenetikiko eragiketen urteko aitorpena aurkeztu, abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuan araututakoa, zerga-kudeaketan elkarri laguntza emateko betebeharra urratuz, Foru Arau Orokorraren 92. artikuluan jasoa.*

ALEGAZIOAK

Aspektu hori Udal Egoitzak zuzendu du 2012ko ekitaldian, eta Getxo Kirolak-ek, berriz, 2013koan.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BOTO PARTIKULAR KONKURRENTEA, HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN KONTSEILARI DEN JESÚS MARIANO GARCÍA RUIZ KONTSEILARI JAUNAK GETXOKO UDALAREN 2011-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI JARRITAKOA. TXOSTENA 2013-KO URRIAREN 24-AN EGINDAKO OSOKO BILKURAN ONARTU ZEN BEHIN-BETIKO.

